


JOSE VICENTE DE ECHAGARAY

FESTABA

(Bere bertso guzien bilduma)

(Biltzalea: A. Zavala, S. I.)



AUSPOA LIBURUTEGIA

12K. 53990

JB-960

F E S T A R A

(Bere bertso guzien bilduma)

AUSPOA LIBURUTEGIA

35 - 36

COLECCION AUSPOA

Administración: **Plaza de Santa María, 2-Telesa**
Dirección literaria: **Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.**
Colegio S. Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián
(Guipúzcoa - España)

Ordaindu bearra:

Urte betekoa: 200 pezeta Atzerrian: 275 pezeta

Ongilleak: 350 " Ale bakarra: 25 "

JOSE VICENTE DE ECHAGARAY

FESTARA

(Bere bertso guzien bilduma)

(Biltzalea: A. Zavala, S. I.)

AUSPOA LIBURUTEGIA

1964

Depósito Legal S. S. 473/64
Núm. Registro S. S. 7160/63

IMPRESO EN "GRAFICAS IZARRA" - PEÑA Y GOÑI, 13 - TEL. 17331
SAN SEBASTIAN (ESPAÑA)

ARKIBIDEA

JOSE VICENTE DE ECHAGARAY	9
ITZAURREA	18
1813: Sitio y asalto de la plaza de San Se- bastian	21
1814: Villancicos Euskaros	26
1815: Eguberri kantak	29
1816: "Privados en muchos años..."	33
1816: Eguberri kantak	36
1817: (Iñauteriak)	40
1817: Artzaigokia	42
1817: Plaza berriko metarriyen asierari ...	47
1817: Eguberri kantak	52
1818: Erregeen gurtea edo adoraziyua ...	55
1818: (Iñauteriak)	58
1818: Jardinzayen festa	59
1819: Eguberriyeko kantak	64
1820: (Iñauteriak)	67
1820: Bigarren Artzaigokia	68
1827: Donostiyan zapatarari festa	73
1828: (Iñauteriak)	77
1828: Irugarren Artzaigokia	78
1828: Errege eta Erregiñaren etorrerari ...	83
1828: A los Reyes. Arkadiako artzayak	90
1828: Eguberri bezpera gabean	94
1829: Erregeen gurtea edo adoraziyoa	99
1829: Eguerritako kantak	105
1830: (Iñauteriak)	111
1830: Langille maisuben festa	115
1830: Eguerritako kantak	122
1831: Gambrako Gazteak Eguberri bezperan	128
1832: (Iñauteriak)	130
1832: Comparsa de jardineros	132

1832: (Iñauteriak)	139
1832: Langille maisuen festa	141
1832: Villancicos euskaros Gambrako gazteak	148
1833: Iru Errege gabeen	151
1833: Jesusen Jayotzari	154
1838:	158
Karlos Bostgarren Errege deitzen danari ...	161
Txapeltxuri euskaldun ernegatu baten kantak	166
1841: (Iñauteriak)	170
1941: Comparsa de jardineros	171
1843: (Iñauteriak)	176
1843: Comparsa de Estudiantes	177
1943: Langille maisuen festa	182
1843: Los gitanos andaluces	190
1844: Iru Errege bezpera gabeen	196
1845: Donostiarrak 1845-ko Iñauteriyetan ...	201
1845: Comparsa de valencianos	204
1845:	209
1845: "Jayo ziñan ordutik, Luisa Fernanda" ...	210
1845: Erregiñari, bere ama andre ta aizpatxoari	212
1845: Gurutze Santu Lezokoa	216
1846: Maisu langille festa	220
1846: Isabel Bigarrenaren ezkontzari	225
1848: (Iñauteriak)	229
1848: Iltzeko zezenak	230
1848: Pelegrinoaren bizi-modu negargarria ..	234
1849: (Eguberriak)	238
1849: Eguberriko kantak	239
1849: Galai gaztetxoak Jesusen jayotzari ...	243
1850: Errege bezpera gauean	246
1850: (Iñauteriak)	250
1850: Comparsa de Jardineros	251
1850: Pelegrinoak beren Donostiara etorrian	258
Al nacimiento del Hijo de Dios	262
1852: Zortziko: "Erregiña andrea..."	266
1853: Iñauteriyetan zortziko berriya	268

JOSE VICENTE DE ECHAGARAY

Donostian jayo zan, 1773-ngo Uztaillaren lenengoan, goizeko ordubatean.

Egun berean batayatu zuten San Bizente-ko elizan (1).

Aita, Martin Joseph, Donostiarra zuan; ama, berriz, Maria Ana, Urrestilla-koa.

Aitaren aldeko aiton-amonak: Martin Joseph eta "Maria Magdalena de Jauregui"; amaren aldekoak: "Ignacio de Bicuña" ta "Maria Magdalena Altuna".

San Bizente-ko eliz-liburuetan, lau anai-

(1) Batayo-agiria, San Bizente-ko 7-gn. batayo-liburua, 247-gn. orria: "En primero de Julio de mil setecientos y setenta y tres: Yo Dn. Joseph Antonio de Arrieta, Vicario perpetuo de la Parroquia de San Vicente Levita y martir bautize á Joseph Vicente, que nacio a la una de esta mañana: hijo legitimo de Martin Joseph de Echagaray, y Maria Ana de Bicuña; abuelos paternos Martin Joseph de Echagaray y Maria Magdalena de Jauregui; maternos Ignacio de Bicuña, y Maria Magdalena de Altuna. Padrinos Joseph Vicente de Larrañaga, y Maria Josepha de Loydi, y por ser verdad firme = Dn. Joseph Antonio de Arrieta."

-arreba zirala agertzen da: Manuel Maria (izen guziak: "Manuel Maria Vicente Benito"), 1770-ngo Ilbeltzaren 12-an jayoa; Josepha Theresa ("Josepha Theresa Vicenta Maria"), 1771-ngo Martxoaren 10-an jayoa; irugarrena, gure Jose Bizente; ta laugarrena, "Maria Getrudez", 1778-ngo Abuztuaren 4-an jayoa.

Lau senideetatik iruri Bizente izena jarri zieten. Beraz, seme-alabak San Bizente-ko "koxketan" jayoak izatea, santuari ondo eskertzen zioten gurasoak.

Santa Mari-ko eliz-liburuak erre egin ziran, 1813-ngo urtean inglesak erria artu ta kiskaldu zutenean. Ala, iñoiz ezin jakingo degu, familia Santa Mariko barrutian ere bizi ta an beste seniderik jayo ote zan.

Ain zuzen, familiaren urrengo berria Santa Mari-ko eliz-liburuetan arkitu degu: amaren il-papera. 1817-ngo Martxuaren 2-an il zan, 75 urterekin. Il-paperak alargun zegoala dio, bañan aitaren il-paperik ez degu ez San Bizenten eta ez Santa Marian arkitu. Bearbada, Donostia erre baño len Santa Mariko barrutira etxez aldatuak izango ziran; ta aita, Donostia erre zan gabeen illa izatea ere, izan ditekena da.

Ama, il zan baño bi urtez aurretik testamentua egiña zan (2).

Seme bat ta alaba bat omen zituan. Beraz, agidanean beste biak illak izango ziran. Aitazen dituanak dira: Jose Bizente ta “Dña. Getrudiz”, bizirik ote zan etzekiana (“cuya existencia ignoro”); semea ezkongai zegoala dio, ta alaba zein estadutan zegoan ere etzekiala (“que no sé el estado de la otra”).

3.000 peso (bakoitzak 15-na erreal balio zituana) utzi zituan, berak bere lanaz irabaziak, senarrak dirurik batere ekarri etzualako. Diru-pilla ori semearen eskuetan utzi zuan, bera oso zartua zegoalako.

Esterlines kalean etxe bat, berak bere diruz eresia, bazuan, bañan 1813-ngo sua ezkerotik desegiña zegoana. Etxe au semearentzat bakarrik utzi zuan, “mejoratzeko” aitzekian. Testamentu guzia semearen alde egiña dago.

Bañan arritzekoa dana da, alaba gisa ortan, bere iñolako berririk gabe, etxetik al-

(2) Archivo Provincial, Oñate, Protocolo del Distrito de San Sebastián, Legajo 66, fol. 1.

Testamentu au Fausto Arocena jaunak arkitu ta aztertu du. Berari zor dizkat, orain emango diran berriak. Milla esker.

degiña izatea. Dударик gabe, testamentu on-tan, badago alako "misterio"-usai bat.

Jose Bizente Echagaray, 46 urterekin ez-kondu zan, 1819-ngo Azaroaren 28-an. An-dregaya naparra zuan: "Antonia de Latasa". Sunbilla-koa (3).

Bi alaba izan zituzten: Felizia Nazaria,

(3) Ezkontza-papera, Santa Mariko lenengo ezkontza-liburuan, 20-gn. orrian:

"En veinte y ocho de Noviembre de mil ochocientos diez y nueve: Yo Dn. Domingo de Errazu, Presbitero Beneficiado de la villa de Irun, con licencia del Señor Vicario de Santa Maria de la Ciudad de San Sebastian, habiendo precedido inter Missarum Solemnia de un día festivo una Proclama pro trina, por haverlas dispensado las otras dos el Ilmo. Señor Dn. Joaquin Javier de Uriz y Lasaga, Obispo de esta Diocesis, como se me ha hecho constar por su Despacho expedido en diez y siete del corriente mes, refrendado por su Secretario Dn. Antonio Labairu, precedidos tambien el Examen de Doctrina Cristiana, los Santos Sacramentos de Penitencia y Comunion y Consentimiento de interesados, asistí al Matrimonio, que in facie Ecclesie contrajeron Dn. José Vicente Miguel de Echagaray, soltero, natural de esta Ciudad, y D.^a Antonia de Latasa, tambien soltera, natural de Sumbilla: El hijo legitimo de Dn. Martin, natural de esta, y de D.^a Maria Ana de Vicuña, natural de Urrestilla: Ella hija legitima de Dn. Juan Bautista, natural de Sumbilla, y de D.^a Feliciana Garviso, natural de Zubleta, en Navarra: Hallaronse por testigos Dn. Angel Llanos y Dn. José Antonio de Fernandez, y en fe de ello firmo á una con dicho Señor Vicario = Gabriel Dom. de Errazu / Dr. Dn. José Bernardo de Echagüe."

1820-ngo Uztaillaren 29-an jayoa, ta Klau-
dia, 1821-ngo Urriaren 30-an jayoa.

Bañan Echagaray-k etzuan suerte onik
emaztearekin izan. Bere eriotz-agiriak ala
dio: "marido legitimo de D.^a Antonia Lata-
sa, natural y residente en Sumbilla". Beraz,
gizona Donostian eta andrea Sunbillan bizi
izaten ziran. Gauza ori zergatik ote zan, an-
drearen eriotz-agiriak adierazten du: "El
tres de Marzo de mil ochocientos sesenta y
dos a la edad de setenta años murió frene-
tica Antonia Latasa natl. de esta..." (4). "Fre-

(4) "El tres de Marzo de mil ochocientos se-
senta y dos a la edad de setenta años murió fre-
netica Antonia Latasa natl. de esta (**una palabra
difícil de leer, tal vez "vecina"**) de San Sebas-
tian, viuda de José Vicente Echegaray natl. y
residte. en Sanseban. No testo ni dejo manda pia
alguna, y al dia siguiente después de los fune-
rales de Costumbre fue su cadaver enterrado en
el Campo santo de esta villa y en fe de ello fir-
me Dr. Dn. Manuel Jauregui". (Sunbilla-ko Pa-
rrokiko eliz-liburuetan "libro 4 de Finados, fo-
lio 140.")

Ez da esaten, oi dan bezela, gurasoak nor zi-
tuan. Zergatik ote? Berak ezin esan eta besteak
etzekitelako ote?

Sunbilla-ko batayo-agirietan bi Antonia Lata-
sa ageri dira: "Maria Antonia de Latasa" 1787-
ngo. Uztaillaren 3-an jayoa ta "Josepha Antonia
Tomasa de Latasa" 1788-ngo. Abenduaren 21-an
jayoa.

Bañan bi oyetakorik iñor ez dator urteko kontuan
juxtu Echagaray-ren emaztearen eriotz-ageriare-
kin. Onak dio Antonia Latasa 70 urterekin il zala.

netica" itz orrek burutik eginda zegoala esan naiko du, dudarik gabe.

Echagaray 1855-ngo Apirillaren 15-an il zan, 81 urterekin. Eliz-liburuak 84 urterekin il zala dio, bañan oker; kontua eginda, 82 urte osatu gabe il zala agertzen da (5).

Manterola da Echagaray-ren bizimoduaz herririk geyena eman diguna. Arek diona. itzez-itz jarriko degu emen:

1862-ngo Martxuaren 3-an. Bañan urte ontan, bi oyetatik, batek 74 urte bearko zituken ta besteak 72. Beraz, oyetakoren batek aren emaztea izan bear badu ere, gauza onengatik eta eriotz-agirian gurasorik aitatzen ez dalako, ezin jakingo degu Echagaray-ren emaztea noiz jayoa zan.

(5) Dia quince de Abril de mil ochocientos cincuenta y cinco; habiendo recibido el Santo Sacramento de la Extremauncion murió a los ochenta y cuatro años de su edad Dn. José Vicente Echegaray, natural de esta y marido legítimo de D.^a Antonia Latasa, natural y residente en Sumbilla; y su cadaber despues de los funerales en la Parroquia de Santa María de esta Ciudad de San Sebastian fue enterrado en el Campo Santo; No testó; y como Vicario de ella firmo. Dn. Elias de Gorostieta (Donostiko Santa Maria elizako bigarren eriotz-liburua, 22-garren orria).

López Alén jaunak, Euskal-Erria aldizkarian, 1853 urtean il zala dio; bañan oker noski, eliz-liburuak bestela dio ta. Ortaz gañera, "31 de Agosto" kalean, 33-gn. etxean lenengo bizitzan il zala dio. Bañan il zaneke urtea oker esaten duan ezkeru, fede aundirik ezin emango diogu zein kale ta etxetan il zan esaten duanean. Ez du gañera berri oyek nundik jaso dituan adierazten.

“...D. Vicente de Echagaray, probísimo y modesto ciudadano, hijo de la capital de Guipúzcoa, y empleado en su administración municipal durante largos años.

Amable y condescendiente con todos, vascongado de los más puritanos y de los más apegados á las antiguas morigeradas costumbres del país, Echagaray fué durante cuarenta años (1813-1853) el poeta obligado en cuantas circunstancias y fiestas era necesario *escribir algo*, y así tan pronto componía los villancicos para las iglesias parroquiales de San Sebastian, como las coplas para las estudiantinas y las comparsas de Carnaval, los himnos y zortzicos para casi todas las solemnidades, los *versos de encargo* para las funciones de beneficio en los teatros y serenatas, y otras numerosas composiciones para análogos y tan variados fines.

Hombre modestísimo y complaciente servía gustoso y gratuitamente á todo el mundo, así es que todos acudian á él en sus necesidades.

Escribió los Villancicos para las parroquias de la Ciudad durante la mayor parte de los años 1814 á 1853, y son también suyas casi todas las composiciones escritas para las numerosas comparsas, estudiantinas y otras fiestas celebradas en San Sebastian durante ese largo período de tiempo.

Hombre dotado de un génio alegre y de un constante buen humor, figuró en casi todas las comparsas celebradas en su época, en las que le cabia una principal parte como autor y como actor.

Desde 1813, en el terrible incendio de cuyo año perecieron las composiciones que anteriormente á dicha fecha habia compuesto, escribió numerosísimas poesías, ya en vascuence, ya en castellano, ya en ambas lenguas, y su número total se aproxima á cien.

Poseía bien el vascuence, y sus composiciones en este idioma, (dialecto guipuzcoano), valen en general bastante mas que las escritas en castellano.

.....

Echagaray fué durante muchos años administrador de la Alhóndiga de San Sebastian, y estuvo tambien empleado por algun tiempo en la Junta de Comercio, cumpliendo en ambos puestos sus deberes con verdadera conciencia y escrupulosidad.

La única obra que compuso, aparte de sus versos, fué una traducción al vascuence de uno de los Evangelios, (no recuerdo si el de San Lúcas ó de San Mateo), version cuyos originales creo posea el ilustre Príncipe L.L. Bonaparte, que debió adquirirlos, se-

gun tengo entendido, en su excursion filológica á este pais en 1856.

Probo ciudadano, hombre recto y honrado á carta cabal, D. Vicente de Echagaray falleció en su pueblo nativo el 15 de Abril de 1855.

En su tumba, como en la de otros muchos que han dedicado sus desvelos ó sus ócios al cultivo de las letras, pudiera escribirse con harta verdad: *Fué poeta. Vivió y murió pobre*" (6).

(6) José Manterola: "CANCIONERO VASCO", Segunda serie, Tomo IV, pág. 54-56.

ITZAURREA

Liburu ontako bertsoak zein tokitatik jasoaak diran, bertso-sail bakoitza bukatzean ikusiko du irakurleak. Aguro igerriko dion bezela, bi toki dira geyen-geyenik aitatzen diranak:

Bata, kanta-paperak; alegia, garai artan argitaratutako kanta-paperak. Oyek Echagaray-ren ardura-pean argitaratuak izango dira noski.

Bestea, Euskal-Erria errebista da. Onek, pixkabanaka, Echagaray-ren bertso guziak, edo geyen-geyenak beintzat, argitaratu zituan.

Bertsoak kanta-paperen batean eta Euskal-Erria-n zeudenean, alkarren arteko aldaketak eta desberdintasunak oarretan jarri ditugu. Ori bera egin degu, Euskal-Erria-ren bi aletan atera ta alkarren artean desberdintasunik baldin bazuten.

Bada oraindik guk aztertu ezin izan degun kuaderno xar bat eskuz idatzitakoa. Adrian de Loyarte zanaren alargunaren men-

dean dago ta azalean onela dio: "POESIAS DESDE EL 1813 CUYO AÑO SE QUEMABAN LAS ANTERIORES EN EL INCENDIO TOTAL DE ESTA CIUDAD DE SAN SEBASTIAN".

Liburu au egitean kuaderno ori esku artean izatea eskatu nuan noski, bañan ezetz erantzun ziguten, berak ere argitaratzeko asmotan zeudela, eta ez degu kuaderno ori ikusi al izan azala izan ezik, kristalen tartean Donostiko Erriko-Etxeko joan dan urteko "exposizioan" zegoalarik.

Kuaderno ortan Echagaray-ren bertsoak daudela badakit; ez ordea berak idatzitakoak ala Manterola-k edo besteren batek kopiatua dan; ezta ere gure liburu ontan ez dagoan bertsoarik ote duan, edo emen dagoanik an ez dagoan.

Euskal-Erria-k bein baño geyagotan aita-tzen du Echagaray-ren eskuz idazkia. Bearbada, kuaderno ori izango da.

Liburu ontako bertsoak 1813-garren urtean asi ta 1853-garren urtean bukatzen dira. Bertso-sail bakoitza noiz jarria dan nabarmentzeko, izenburuaren gañean urtea jarri degu beti.

1813-garren urtekoak Donostia erre zanean jarriak dira.

Beste danak, berriz, bat edo beste izan ezik, eguberri, errege-egun, inauteri ta gañerako festeetan kantatzeko antolatuak.

*Ain zuzen, orregatik eta baita ere Echa-
garay-k asmatutako bertsorik famatuenak
orrela izendatzen diralako, "FESTARA" ja-
rri diogu liburu oni izena.*

*Baditugu beste zenbait paper garai artan-
txe Donostian atereak eta itxura dana Echa-
garay-rena dutenak. Oyek ere liburu ontan
jarri ditugu, orretarako itxura beste arra-
zoirik ez degula aitortuaz, eta olakoak zein
diran aldi bakoitzean esanaz.*

SITIO, ASALTO, SAQUEO E INCENDIO
DE LA PLAZA DE SAN SEBASTIAN POR
LAS TROPAS ALIADAS ANGLOPORTU-
GUESAS

- 1/ Nere Donostiko
erritar maiteak,
kanta dezagun gogoz
gure naigabeak,
mundubak jakin dezan
zer zaigun gertatu
ta nolako estaduban
geraden gelditu.

- 2/ Bost urte igaro ondoan
penaz beterikan
frantzesak guregandik
eziñ botarikan,
atzeneko paguba
ezta izan gaiztoa,
iñork munduban aitu
ez bezelakoa.

- 3/ Ditxoso izan uste
genduben orduban,
orrikari gelditu
gerade munduban.
Etsayak juban eta
aliyatubakin
arkitzen gera guztiz
pagu onarekin.
- 4/ Gure euskaldun erriko
soldadu nobleak
asiyera ginduzen
sitiyadoreak.
Gazteluba nai zuben
itxaso aldetik
artu, eta frantzesak
kojitu atzetik.
- 5/ Jende eta denbora
gutxi galdurikan
libre gelditzen giñan
etsayetarikan.
Baña nola Inglesa
degun jaun ta jabe,
laster utzi ginduben
españolik gabe.

6/ Iru ogei milla bala,
bonba eta granada
erriyan sartu dala
duda gabea da.
Eztu iñork munduban
inglesa aboan
plaza fuertiagorik
izango gogoan.

7/ Bazterrez ta itxasoz
illabete biyan
beren ustez egondu
dirade guardiyan.
Amar bat milla gizon,
gañera ontzi asko,
frantzes txaluparikan
ez igarotzeko.

8/ Santa Klara-ko isla
zutenian artu,
etzuten uste iñor
zitegian sartu.
Baña nola zeguan
frantzes kontuban,
gau faltatu gabe
sartzen zan portuban.

9/ Ingeles Portugesak
arturik erriya
biyak egin digute
zenbait pikardiya.
Biolatu eta ill,
sakiatu guztiya,
eta gero ondoren
erre Donostiya.

10/ Bost milla alimali
edo zagi erari
Donostiya kostatu
zayo ingelesari.
Aguardientaz beterik
nagusi-morroyak,
egunaz eta gabaz
guztiyak ordiyak.

11/ Mozkorrak daude beti
burubak galdurik,
eta ikusten ez dute
iñon peligrorik.
Fusilla aguardintaz
karga baliteke,
bala gustoz aboan
artuko luteke.

12/ Donostiar tristeak
zer egingo degu!
nola negu gogorra
igaroko degu!
Ez erri eta ez etxe
ezta ere erroparik,
jatekoa garesti
ta ez izan dirurik.

IKUSI: "Euskal-Erria". 69, 1913, 162 orri-alde.

"Euskal-Erria" errebistaren ale ontan **suban** jartzen du; bestean **juban**. Bigarren era ontan jarri degu, lenengoan esan-nairik etzualako.

"Euskal-Erria", 17, 1887, 190 orri-alde. Ontan ere badatoz kanta auek, bañan 10 eta 11-garrena falta ditula ta gañerakoak an ta emen garbitzaleren batek ikututa: 1/1: Donostiyako; 1/2: ditza-gun; 1/7: ta nolako moduban; 3/1: Doatsu; 3/5: juban; 3/6: laguntzakoakin; 4/1: Euskal-erriko; 4/4: sitiyatzalleak; 4/5: zuten; 4/8: arrapatu atzetik; 5/5: ingelesa; 6/6: ingelesen; 6/7: plaza gorragerorik; 8/4: zitekian; 8/7: gau bat faltatu gabe; 9/4: gaitza ugariya; 9/5-6: onra galdu eta ill, lapurtu guztiya; 12/6: ezta ere jantzirik; 12/7: garisti.

(1814)

VILLANCICOS EUSKAROS

CANTADOS POR NAVIDAD EN EL CORO DE
LA PARROQUIA DE SAN VICENTE DE LA
CIUDAD DE SAN SEBASTIAN, EL AÑO DE 1814

INTRODUCCION

- 1/ Esna ari, Pratzubel,
ator, Antoniyo,
erotu dek nere ustez
gure Gregoriyo;
arestiyan pasa dek
ojuka mendiyán,
Jesusa jayo dala
Beleneko erriyan.

- 2/ Guazen, jarrai zayogun
txabolak largata,
Manubel Inaziyo,
jo zak arrabeta;
salto, brinko eta dantza,
prime, kompañero,
deskansatuko gaituk
bueltakuan gero.

ZORTZIKO

- 1/ Jaungoiko zerukoa
gizon egiñikan
mundura etorri da
Mariyagandikan;
Beleneko ate zar
batzuben azpiyan
jayo da otzak ikaraz
gaurko gaberdiyan.

- 2/ Guazen, para gaitean
lasterka bidean,
Jesus aur eder ura
arkitu artean;
orra izar argi bat
begiyen aurrean
jarriko gaitubena
Belengo lurrean.

- 3/ Zeruko aingerubak
soñu ederrakin
jatxirik emen daude
beste guztiyakin;
au da billatzen degun
leku erogarriya,
ona Jesus, Jose ta
Birjiña Mariya.

4/ Belaun eta begiyak
jarririk lurrean
biyotza jaso zagun
Jaunaren aurrean,
eskatubaz guztiyok
barka dizaigula,
eta bere doaia
betiko digula.

ESTRIBILLO

Manutxu itxi izu
mollan bitxiguba,
ez du antxi antxikan,
ene koitaduba,
erdu ona, Txomintxu,
erdu, neskatilla,
ariñ kaderak, txutxu,
Jesusaren billa.

IKUSI: "**Euskal-Erria**", IV, 1881, 283 orri-alde.

"**Euskal-Erria**", 51, 1904, 578 orri-alde: "Introducción" edo sarreraren bigarren bertsoa falta du; Zortzikoaren 3/6: Ieku nai garriya; Estribilloa: ...ara non dan Txomintxu, — ara neskatilla, / ariñ saltoka, txutxu, — Jesus aren billa.

"**Euskal-Erria**", 61, 1909, 577 orri-alde: Introducción: 1/7-8: Jesus jayo dala — Belengo erriyan; 2/2: txabolak lajata; Zortziko: 1/7: jayo ta otzak ikaraz.

(1815)

**EGUBERRI KANTAK
DONOSTIYAKO SANTA MARIYAKO PRE-
MILEIZAN KANTATUBAK
1815-GARREN URTEAN**

SARRERA

1/ Egurra ebakitzen
nekatu ta ondoan
aritz baten ofiean
erdi lo nengoan;
amets egin dedala
dadukat gogoan,
guztizko berri onak
dirala beingoan.

2/ Ekusi det zeruba,
gero begiyetan
argitasun aundi bat
alde guztiyetan;
norbaitek belarrira
esan dit onetan
Jauna jayoko dala
gaur amabiyetan.

ZORTZIKO

1/ Gau eder zoragarri
zoriyonekoa,
lurrera etorri zana
gure Jaungoikoa,
asmegitari onak
agindutakoa,
egunik argiyena
ez bezelakoa.

2/ Ukullu zar batean
Belen-eko erriyan
gure Jesus jayo da
gabaren erdiyan;
jakindurik agudo
artzayak mendiyan
jatxi dira lasterka
denbora gutxiyan.

3/ Izar argi eder bat
lagun arturikan
iru errege datoz
Oriyentetikan;
galdezka igaro dira
Jerusalendikan,
Jesusaren jayotzaz
duten berririkan.

4/ Ekusi ta ezagutu
dutenean Jauna,
lasterka jarri dute
lurrean belauna;
biyotzak altxaturik
Jesusarengana
irurak egin dute
eskariyo bana.

5/ Aingeru zerukoak
lurrera etorriyak
Jesusen ingurutan
an daude guztiyak;
an daude erregeak,
an daude artzayak,
aur eder arri eman
nairikan begiyak.

6/ Jesus eta Mariya
ona Joserekin,
ona emen aingerubak
soñu ederrakin;
ona zeru guztiya
Jaungoikoarekin,
ona gaurko gabeen
lurrean gurekin.

EUSKARITXOA

Guazen, ekus dezagun
aur jayo berriya,
guazen, egin zayogun
ongi etorriya;
guazen, eman zayogun
jana ta erariya,
oya, legorpea ta
jantzi-erantziya.

IKUSI: "Euskal-Erria", IX, 1883, 542 orri-alde.

(1816)

“La primera fiesta de esta índole de que hallamos noticia es la *Estudiantina del jueves de Carnaval del año de 1816*, para la cual escribió el citado D. José Vicente de Echegaray una *Tirana*, compuesta de doce cuartetos castellanos y un estribillo. Aunque como muestra suele bastar un botón, vamos a copiar algunos de estos versos que, si poéticamente son ciertamente de escasísimo mérito, merecen reproducirse por su sabor de época y por las alusiones que contienen a la historia y el estado de la Ciudad.

He aquí las cuartetos 1.^a, 3.^a, 4.^a 5.^a, 6.^a, 7.^a 11.^a y 12.^a:

**Privados en muchos años
de tunas y correrías
por fin con la paz de Europa
volvemos a nuestros días.**

**San Sebastián desgraciada,
venimos a ver tu suelo,
con la música y el canto
a procurar tu consuelo.**

Una destructora guerra
y una británica mano
tu desolación eterna
decretaron, pero en vano.

Derribaron, es muy cierto,
tus edificios suntuosos,
aquella brillante plaza
y sus *cubiertos* (?) hermosos.

No por eso *te* desmayes
que tus hijos te sostienen
y de *revivir* tus cenizas
grandes esperanzas tienen.

No pierdas tu genio afable,
pobre víctima inocente,
que Fénix será el escudo
colocándose a tu frente.

Todo quedará vencido,
tú serás la victoriosa,
y volverás a llamarte:
San Sebastián deliciosa.

Adiós, pueblo placentero,
digno de otra mejor suerte,
adios, *donostiar maiteac*,
urresco ñauteriyac arte.

El domingo de Carnaval del mismo año hubo una *Andaluzada*, o comparsa de majos y toreros, para la cual el mismo Sr. Echegaray escribió, en estilo que pretendía ser flamenco, una *Tirana*, compuesta de 12 cuartetos, más un estribillo, de las que pueden servir de muestra las dos siguientes:

Hemos visto algo de bueno
en las provincias toditas,
pero nos hayamos locos
con estas guipuzcoanitas.

Tanto nos ha cautivado
el carácter de estas chonas,
que parece ya no somos
dueños de nuestras personas.

Y el lunes del mismo Carnaval una *Comparsa de ciegos valencianos*, para la cual compusieron una *Tirana* el Sr. Legarda y un *Bolero* el popular Echegaray". (1.)

(1) José Manterola: "Breve noticia de algunas comparsas y fiestas de Carnaval habidas en San Sebastian en el presente siglo" ("Euskal-Erria", VIII, 1883, 97 orri-alde).

(1816)

EGUBERRI KANTAK
DONOSTIYAKO SANTA MARIYAKO PRE
MILEIZAN KANTATUBAK
1816-GARREN URTEAN

SARRERA

- 1/ Au gauaren guztizko
eder ta alaya,
berak ekarri digu
Jaunaren doaya;
garaiturik beingoan
infernuko etsaya,
gelditzen da zeruko
atea idikiya.
- 2/ Kristabak, aitor zagun
gure doikerra,
zeren Jauna izan dan
ain kupidakorra,
esanaz biyotzetik
fedea andiarekin:
"Jauna izan dedilla
betiko gurekin".

ZORTZIKOA

1/ Gau eder aukerako
parerik gabea,
zuk ekarri gaituzu
Erredentorea;
zuk kristau guztiyentzat
dakartzu bakea,
lurrera jetxirikan
gaur gure jabea.

2/ Irugarren persona
Trinidadekoak
gaur idiki dizkigu
ate zerukoak;
bere onegilleko
obra birtuteak
garaitu du etsaya
ta urratu kateak.

3/ Ona Trinidadeko
bigarren persona
digun amoriyuaz
egiñik gizona;
Mariya batzayaren
errayetatikan
lurrera etorri da
kristabagatikan.

4/ Gaur egikaritu da
zoriyon gurean
Guzi-al-dubenaren
naigiña lurrean;
gaur Betlengo estalpe
beartu batean
gure Jesus maitea
dago trosa artean.

5/ Herodesek jakiñik
aurraren jayotza,
bereala nai diyo
eman eriotza;
bañan egiztatzeko
lendandik esana,
aingeru bat jatxi da
aita Josegana.

6/ Ametsetan aitu du
esaten diyola
Ejiptoko bidean
jarri dediyela;
guazen, jarrai zayogun
kristabak munduban,
gero arki dezagun
guztiyak zeruban.

EUSKARITXOA

Guazen guztiyok, guazen,
lasterka Belena,
guazen, gaur da jayotza
gure Jesusena;
guazen, gaur da lurreko
gaurik ederrena,
guazen, kristau maiteak,
guazen bada aurrena.

IKUSI: "Euskal-Erria", IX, 1883, 543 orri-alde.

"Euskal-Erria", 55, 1906, 578 orri-alde. Bañan
ontan **Zortzikoa**-ren bertsoak beste orden ontan
daude: 1, 3, 5, 2, 4, 6.

1850-garren urtean kanta-paper batean argita-
ratu ziran bertso aukeratuak:

Kanta-papera (Manterola-ren bertso-bilduma,
Donosti). Kanta-papera jira guztian ertzetatik eba-
kita dago. Beraz, moldiztegiaren izena zuana izan
zitekean, gaur gabe badago ere.

Aldaketak: Izenburua: DONOSTIAKO GAZTE-
TXOAK JESUSEN JAYOTZARI 1850-GARRENGO
URTEAN. Sarrera 1/8: sarrera garbia; 2/2: gure
doaikera; 2/6: fede onarekin; Zortzikoa 1/1: Gau
eder aukeratu; 1/5-6: zuk gaur kristabarentzat —
dakartzu pakea; 1/8: guztion jabea; 2/7-8: ga-
raitu du etsaya, — urratu kateak; 3/5: Mari Bir-
jiñaren; 3/7: etorri da lurrera; 4/8: dago trotzar-
tean; 5/5-7: baña egitutzeko — lendanaz esana /
aingerua jatxi da; 6/4: ipin dediela; 6/8: guz-
tiok; EUSKARITXOA jarri bearrean, COROA jar-
tzen du; Euskaritxoan 8: guazen gu lenena.

(1817)

“El domingo 7 de febrero de 1817 hubo una *Mascarada de ciegos valencianos*, y el día 13 (?) del mismo mes y año un *Arzaigokia*, pastorela o comparsa de pastores. Para la primera el famoso D. José Vicente compuso una *Tirana*, compuesta de seis cuartetos con *Estrivillo* y *Recitado*, una *Jota* y un *Bolero* en seguidillas; para la 2.^a una *Marcha*, *Pastorela* y *Zortzico*, que damos a conocer íntegros, por separado, en este mismo número.

El estrivillo de la *Tirana* era el siguiente:

Viva San Sebastian, viva,
viva pues que ya revive,
viva que tan halagüeña
al forastero recibe.” (1)

“...y ya el Carnaval del año siguiente de 1817 se organizó la primera *Comparsa de pastores* (*Arzaigokia*), dirigida por el famoso D. José Vicente de Echegaray, que escribió para ella composiciones bascongadas, propias del acto, y alusivas a la historia y estado de la Ciudad, tomando parte activa en la

(1) José Manterola: “Breve noticia de algunas comparsas y fiestas de Carnaval...” (“Euskal-Eria”, 8, 1883, 97 orri-alde).

misma Comparsa, en la que desempeñó el papel de *Aita Melchor*.

Esta fiesta fué el prólogo de una larga serie de comparsas de análoga índole..." (2)

(2) "**Recuerdos del Carnaval de 1817**", "Euskal-Erria", 8, 1883, 109 orri-alde. (Egillearen izenik ez badu ere, Manterola-rena da, batere dudarik gabe.)

(1817)

ARTZAIGOKIA
DONOSTIYAN OTSAILLAREN AMAIRU-
GARREN EGUNEAN MILLA ZORTZI
EUN DA AMAZAZPIGARREN URTEAN

MARTXA

Guazen, artzayak, guazen, andreak,
ekus dezagun erriya,
auxe bera da billatzen degun
erretako Donostiya.

¡Au jende ederra eta alegria!
¡au jantziyaren garbiya!
ezta ezagun mayorazkua,
ezta ere nekazariya.

ARTZAI-KANTA

Ona gaur Donostiyan
Greziyako artzayak,
urtebetetik onuntz
euskerak ikasiyak:
ekusirik erriko
liburu zarretan
euskaldunak giñala
lengo denboretan.

Ona guztion Aita
gure Meltxor jauna,
argitasun aundiyak
eman dizkiguna:
beti zorko diyogu
berari graziya,
gizon eta andreak
euskera ikasiya.

Jakin ditugunean
zuben naigabeak,
ikaratu ez gaitu
batere bideak:
iñon gelditu gabe
sei illabetean,
gaur Donostiyan gaude
zoriyon gurean.

Euskaldunen artzeera
ekusi ta ondoan
bertan bizi izatea
daukagu gogoan:
emen ere badira
ugari artzayak,
eta urruti gabe
dauzkagu mendiyak.

Etorriko gerade
noiztik eta nora
gazta-esne zuriyak
zubei ekartzera:
guztiya izango da
garbiro egiña,
ezta eskas izango
gure alegiña.

Gure amoriyua
euskaldunentzako
izango da firmea
sekuletarako:
erriyan ta mendiyan
nola txaboletan
gogoango ditugu
gure egunetan.

EUSKARITXOA

Soñu eta kantakin
datoz Greziyatik
artzayak arturikan
andreak ondotik:
esanaz biyotzetik
guztiyok batian:
*Donostiya que viva,
viva San Sebastian!*

ZORTZIKOA

Donostiyan gaudela
ezin sinisturik
etxe abei begira
gaude arriturik:
zeren etorri geran
bidean aiturik
eztegula arkituko
paretak besterik.

Ekusten degu bada
atsegiñarekin
bearra egiten dala
langille askorekin:
etxe galanta franko
aurre ederrakin,
denda, ganbara, soto
eta balkoyakin.

Gure begiyak daude
ezin asperturik
ekusten naigabeak
zaudetela azturik:
kale berri zabalak
zuzen idikirik,
eta gañera asmoak
aurrerako arturik.

Konzeju-etxe ta
plaza egin ondoan
fama zabalduko da
munduban beingoan:
ez leneko denboran
eta oraingoan
onelako erririk
eztala gogoan.

IKUSI: "Euskal-Erria", VIII, 1883, 110 orri-alde.

(1817)

“Los días 16 y 17 de Setiembre de este mismo año de 1817 hubo extraordinarias fiestas y regocijos públicos, con motivo de la medición de la nueva Plaza de la Constitución y la colocación de la primera piedra. La mañana del 16 concurrieron al lugar que ocupó la antigua Plaza todas las Autoridades, Cabildo, la Junta de obras, los principales propietarios y el pueblo en masa. Se demarcó la plaza, y se colocaron solemnemente las piedras de las columnas angulares, celebrándose el fausto suceso con bailes, *ezpata-dantzaris* y otros festejos. Con motivo de esta solemnidad compuso también el Sr. Echegaray un *Zortzico* bascongado, que se cantó la ya citada noche del 17.” (1)

“Esta composición se cantó en San Sebastián el 17 de Setiembre de 1817, al día siguiente de haber dado principio la construcción de la nueva plaza, que hoy se llama *de la Constitución*, en cuyo honor fueron compuestos estos versos.” (2)

(1) José Manterola: “Breve noticia de algunas comparsas y fiestas de Carnaval...” (“Euskal-Erria”, VIII, 1883).

(2) (“Euskal-Erria”, XV, 1886, 236 orri-alde.)

(1817)

**DONOSTIAKO PLAZA BERRIKO
METARRIYEN ASIERARI**

ZORTZIKOA

- 1/ Egun konsolagarri
zorionekoa,
amaseigarreneko
Agorrillekoa:
neurritu dana Plaza
Donostiyakoa,
aztu bear dubena
len erretakoa.

- 2/ Atzo goiz beranduban
Donostiko erriyan
ekusgarririk asko
zan plaza berriyan:
alkiyak ipiñirik
inguru guztiyan,
agintariyak zeuden
jarririk erdiyan.

3/ An ziran kabildo ta
Errege gizonak,
an ziran gure junta
obretako jaunak
etxegille nagusi
agintariyenak,
ezpata-dantzari ta
soñurik onenak.

4/ Edertasun andi bat
goizeko amaiketan
zegoan jendezkoa
leku guztiyetan:
Plazan eta kaleko
etxe berriyetan,
arri pilla, leyo zar,
pareta gañetan.

5/ Arri urdiñ biribill
lenbizikoetan
atzo sartu dirade
Plaza-kantoyetan
paper eta dirubak
frasko ederretan,
noizbait jakin dediyen
ondorengoetan.

6/ Ekarriko dirade
bereala arriyak,
egiteko bertatik
pillare berriyak:
guztiz izango dira
sendo ta egokiyak,
orpoetan urdiñak,
gañean zuriyak.

7/ Gero asiko dira
egiten etxeak,
ogei ta bosteraño
posible ez obeak:
berdintasunarekin
banaita gabeak
artuko dituztenak
Plazan iru aldeak.

8/ Konzejuko etxeak
beteko du urrena
gure plaza berriko
alde laugarrena:
zimenduak sendoki
egiñik aurrena,
izango da erriko
lanik ederrena.

EUSKARITXOA

Oroipena gaur zuri
gure Donostiya,
utzirikan alde bat
naigabe guztiya:
zuri gaur oroipena,
zuri, gure erriya,
kanta ta dantzatubaz
zortziko berriya.

IKUSI: "Euskal-Erria", XV, 1886, 236 orri-alde.

(1817)

**EGUBERRI KANTAK
DONOSTIYAKO SANTA MARIYAKO PRE-
MILEIZAN 1817-GARREN URTEKO
EGUBERRIYETAN KANTATUBAK**

SARRERA

1/ Atozte, langilleak,
laster egizute,
zuben neke izerdiya
utzi ezazute;
jarraituko nazuten
egun badet uste
atsegiñez beterik
ala zar non gazte.

2/ Jakin bear dezute
Jesus jayo dala,
estalpe zar batean
Belenen datzala:
eskas izan ez dezan
gure egin-ala,
nere lagun maiteak,
guazen bereala.

ZORTZIKOA

- 1/ Jaunari alabantzak,
Jaunari graziyak,
kristabaren izena
dadukan guztiyak,
kunplitu diralako
egun profeziyak,
bere abo santutik
gizonari utziyak.

- 2/ Lendanaz emanikan
Moises-i legea,
mundura etorri da
Erredentorea:
ezagutu dezagun
bere bondadea,
irikitzero dator
zeruko bidea.

- 3/ Estalpe zar batean
Beleneko erriyan
gure Jesus jayo da
gabaren erdiyan,
Birjiña Amagandikan
umildade aundiyan,
otzak eta bearrez
iltzeko zoriyan.

4/ Zeruba ta lurrean
Jaun ta jabe dana
larru gorriyan dator
kristabarengana,
zeren umiltasuna
bear dan aurrena
arkitzeko zeruko
biderik onena.

EUSKARITXOA

Guazen, igeltseroak,
argiñ eta arotzak,
gaur Jesus adoratu
bear du bakoitzak;
Birjiña Amarekin
ikaraz dago otzak
mundura etorriya
gu salbatzekotzat.

IKUSI: "Euskal-Erria", I, 1880, 278 orri-alde.
"Euskal-Erria", 57, 1907, 548 orri-alde. Onek
Zortzikoaren lenengo bertsoa ta Euskaritxoa falta
ditu.

(1818)

DONOSTIYAKO GAZTEAK
ERREGEEN GURTEA EDO ADORAZIYUA,
BEREN EGUNAREN BEZPERA GABEAN, MILLA
ZORTZI EUN DA EMEZORTZI-GARREN
URTEAN

OTSASTETXOA

Izan arren munduban
ondasuna ugari,
enperadore, errege,
jaun eta agintari,
guztiya zor diogu
Jesus maiteari;
berari alabantzak,
graziyak berari.

Ona gaurko gabean
bertan ejenploa,
adoratu dezagun
gure Jaungoikoa,
birtuterik onena
umildadekoa,
iru errege magok
emanitakoa.

ZORTZIKOA

1/ Iru errege datoz
Oriyentetikan,
Jaunak izar eder bat
lagun emanikan,
kriyaduz ta erregaloz
ondo beterikan,
Jesus adoratzera
biyotz guztitikan.

2/ Irurok ipiñirik
belaunak lurtean
emen arkitzen gera
Jaunaren aurrean,
esperantzaz beteak
diyogun fedean
jarriko gaitubela
zeruko bidean.

3/ "Zu zera, Jesus, gure
Erredentorea,
zurea da eskaintzen
dizudan urrea;
Zu zerade Meltxorren
Jaun eta jabea,
zurea da lurra ta
zeruba zurea."

4/ Alabantzaz beterik
zure izen santuba,
Gasparrek ofrezitzen
dizu intzensuba:
“Au da Arabiyako
arbolen frutuba,
aurtxo paregabea,
zuretzat bilduba.”

5/ Baltasarrek eskaintzen.
dizu, Jesus ona,
Ejiptoko arbolen
urik gozoena:
“Mirraren balsamua,
gure goiko Jauna,
borondatez beterik
dakart zuregana.”

EUSKARITXOA

*Belenen argitu da
eguna gabea,
atozte ekustera
zeruba lurrean:
ona non aingerubak
dabiltzan aidean,
Jesus Mariyarekin
Joseran gañean.*

“El 29 de Enero de 1818 se celebró, bajo la dirección de los señores Echegaray, Leizaur y Yun, la primera *Comparsa de Jardineros*, en la que tomaron parte jóvenes de uno y otro sexo; y el martes de Carnaval del mismo año recorrió las calles una *Estudiantina*. Para ambas escribió Echegaray las poesías necesarias, en bascuence y castellano.

Las estrofas 2.^a, 3.^a y 4.^a del *Zortzico* compuesto para la *Comparsa de jardineros* dan idea bastante exacta de los trajes que lucieron los jóvenes que figuraron en ella.” (1)

“La primera (*Comparsa de jardineros*), a que nos referimos, se celebró el 29 de Enero del año 1818, siendo sus directores y principales protagonistas los señores D. José Vicente de Echegaray y Leizaur, encargados ambos del papel de *Aita Josepe*, y el Sr. Yun, que representaba el de *Bartolo*.

El primero de ellos, poeta obligado de todas las fiestas locales, escribió en lengua bascongada todas las poesías necesarias...

Las estrofas 2.^a, 3.^a, 4.^a y 5.^a del *Zortzico* del Sr. Echegaray dan completa idea de los trajes que lucieron los jóvenes de uno y otro sexo que tomaron parte en la primera *Comparsa de jardineros* celebrada en esta Ciudad.” (2)

(1) José Manterola: “Breve noticia de algunas comparsas y fiestas de Carnaval...” (“Euskal-Erria”, VIII, 1883).

(2) “Recuerdos del Carnaval de San Sebastian — Las Comparsas de Jardineros” (“Euskal-Erria”, X, 1884, 55 orri-alde).

(1818)

JARDINZAYEN FESTA
DONOSTIYAN BELTZILLAREN OGEI TA
BEDERATZIGARREN EGUNEAN MILLA
ZORTZI EUN DA EMEZORTZIGARREN
URTEAN

MARTXA

- 1/ Donostiyako Alkate Jaunak emanikan lizenziya, goizetik datoz Jardiñeruak kantatzen martxa berriya: konpasa artubaz umore onez alegratzeko erriya, soñuba dute guztiz ederra beren artean jarriya.
- 2/ Joxe biyak (3) eta Bartolo (4) jardiñetako maisubak antziñatikan gure artean izan dirade deitubak: beti lanian aurtasunetik neke izerdiyan oitubak, buruko illea eta bizarra dakazkite zuritubak.

(3) El autor y Leizaur. (Euskal-Erriaren oarra.)

(4) Yun el padre. (Euskal-Erriaren oarra.)

OTSASTETXOA

- 1/ Donostiyara Jardineruak
baratza eder batekin
apaindurikan datoz guztiyak
beren Jardinerarekin.
- 2/ Iñork nai badu belar onikan,
naiz dala lore aziya,
gure baratzen arkituko du
asma diteken guztiya.
- 3/ Zer nai gauzatik lore ta belar
ugari dauka jardiñak:
ispligu gozo, azitrai berde,
arros, klabelin, jazmiñak.
- 4/ Albaraka ta lirio eder,
bioletatxo morea,
oreganoa, limoi belarra,
naiz laranjaren lorea.

EUSKARITXOA

Zarrak eta gazteak
ernai soñubari
bozaroki onean
guztiyok kantari:
batere larga gabe
nork bere lanari,
arreta baratzako
lore belarrari.

ZORTZIKOA

- 1/ Emanikan Jardiña
zer dan aditzera,
oraiñ soñekoakin
degu asiyera:
zer gauza ederra dan
burutik oñera
Jardiñeruak egun
duten jantziyera.

- 2/ Gizasemeak dute
aitzur bat eskuban,
lore eta zintakin
txapela buruban:
pañubelua beti
leneko moduban,
txalekua beterik
mirtoz inguruban.

- 3/ Lazadakiñ gerriko
sedazko gorriyak
alkandoren gañetik
ederki jarriyak:
ankinazko galtzakin
galtzerdi zuriyak,
kolorezko zapatak
guztiz egokiyak.

4/ Ez daude eskasago
gure emakumeak,
lastozko txapelakin,
luzean illeak:
lorez eta belarrez
entero beteak
zintaz estalirikan
soñeko trajeak.

5/ Zesto bana eskuban
bakoitzak arturik,
nork bere gizonari
lagun egin nairik,
gabaz eta egunaz
beti nekaturik,
beren aurraren malurak
ezin gelditurik.

6/ Gure seme ta alabak
urte gutxirekin
nekean asten dira
bat bestearekin
etxeko atariyan
baratzatxoakin
gero lana egiteko
aita ta amarekin.

EUSKARITXOA

*Biba ostegun gizen,
biba iñauteriya,
biba Jardineruak,
biba Donostiya,
biba pobre ta aberats
munduko guztiya.*

(1819)

EGUBERRIYETAKO KANTAK (1)

SARARTEA

1/ Beleneko erriyan,
mendi zelayetan,
txabola, legorpe ta
bide ingurubetan:
Aingerubak diyote
leku guztietan
Jesus jayoko dala
gau erdi onetan.

2/ Allegatu da bada
gabaren erdiya
guazen arki dezagun
Beleneko erriya:
bide-lagun arturik
Zeruko argiya,
guazen adoratzer
aur jayo berriya.

ZORTZIKOA

- 1/ Ona misterioa
parerik gabea,
ona Birjiñagandik
datorren lorea:
Jesus maitea, gure
Erredentorea,
Jaungoiko zerukoa,
lurraren jabea.

- 2/ Ona Onenaroko
gau egun egiña,
Ama gelditu zana
Mariya Birjiña:
Jaunaren amoriyo
geiago eziña,
guztiya deritzayo
kristabaren diña.

- 3/ Gizon egiñik dator
lurrera Zerutik,
kristabaren etsaya
garaitzeagatik:
eziñ geiago egiñ
lezake gugatik,
eman dizayozkagun
eskerrak bertatik.

4/ Sekulako mendean
arturik etsaya,
Jesus maitagarriyak
gugana du deya:
bitarte ipiñirik
Birjiña Mariya,
biyotzetik galdetzen
diyogu graziya.

EUSKARITXOA

Zorioneko gau on
doayez betea,
Zuk ekarri gaituzu
Lurrera pakea,
Mesias egiazko
Jaun eta jabea,
gure Jesus, Birjiña
Amaren semea.

(1) Santa Maria eta San Bizente, Donostiako Premieleiza biyetan, beretako kapillako maisu soñulari nagusi On Mateo Antonio Pérez Albeniz jaunak musikan ipiñiyak, eta 1819-garren urtean kantatuak. (Euskal-Erria-ren <15, 1886> oarra.)

IKUSI: "Euskal-Erria", 15, 1886, 535 orri-alde.

"Euskal-Erria", 53, 1905, 497 orri-alde. Oarra: "Versos cantados en las iglesias de Santa María y San Vicente de la ciudad de San Sebastián, en la Navidad del año 1819, siendo sus autores, de la letra José Vicente de Echagaray, y de la música Mateo Antonio Pérez de Albeniz.

(1820)

“Del año 1819 no tenemos noticia sino de una *Comparsa de sastres* que hubo por San Antonio el día 13 de Junio. La *Jota* y *Bolero* para esta fiesta fueron compuestos por el mismo incansable Sr. Echegaray, ambos en castellano, aunque la *Jota* glosada con un *lauko* euskaro.

El año 20, además de una *Estudiantina* el domingo de Carnaval, para la cual compuso *Tirana* y *Bolero* el mismo poeta tantas veces citado, se celebró la 2.^a *Comparsa* pastoril o *Arzaigokia*, letra del mismo Echegaray, compuesta de *Marcha*, *Pastorela* y *Zortziko*.

Las estrofas 3.^a y 4.^a de este último, dan a conocer los progresos que había hecho ya la edificación en la nueva Ciudad.” (1)

(1) José Manterola: “**Breve noticia** de algunas *Comparsas* y fiestas de Carnaval...”, (“Euskal-Erria”, VIII, 1883).

(1820)

**BIGARREN ARTZAIGOKIA
DONOSTIYAN, OTSAILLAREN 10-GA-
RREN EGUNEAN, 1820-GARREN
URTEAN**

MARTXA

- 1/ Soñuba joaz, martxa kantari
Donostiyako kalera
orain iru urte egondutako
artzayak etorri gera:
pozez biyotzak zabaldurikan
begiyak ez nai alde egiñ,
edertasunez ingurutuak
gure barrenak atsegiñ

- 2/ Eziñ aspertuz begira gaude
Donostiya herriari,
ikusten nola denbora gutxin
egin dan lana ugari:
erriya guztiz ederra bada
jendearen naitasuna
iñon ere eziñ arki liteke
emen dan bañon obea.

ARTZAI KANTA

1/ Greziyako artzayak
ona Donostiyan,
iru urteren buruban
bigarren aldiyan:
lenago Greziyatik
oraiñ menditikan,
zubek ikusi gabe
eziñ etsirikan.

2/ Greziyatik etorri
eta bereala
gaztigatu genduben
txit ondo giñala:
adiskide gureak
dutenian jakiñ
datoz bere andre ta
seme-alabakiñ.

3/ Atsegifñez heterik
nai degun erara,
eziñ obeto pozez
emen bizi gera:
ikusten gaituztela
begi onarekiñ,
Euskal-erriyan artu
beso zabalakiñ.

- 4/ Gure aldetik gera
aurten lenekoak
denbora guztietan
esker onekoak:
ezagaturik beti
emengo jendea
izan ta izango dala
parerik gabea.

EUSKARITXOA

Orañi ñauteriyak
nekeaz azturik
ez daukagu gogoan
pena naigaberik:
egunaz eta gabaz
dibertitu nairik,
ez da kanta, dantza ta
soñuba besterik.

ZORTZIKOA

- 1/ Urbildu geranian
gaur Donostiyara,
elkarri begiraka
gu gelditu gera:
gero ikusirikan
erriko sarrera,
arriturik eskastu
zaigu zentzuera.

2/ Ezagutu eziñik
gure begiyetan
esna arkitzen geran
edo gauden lotan:
Donostiyako kale
berri ederretan
edo Arkadiako
Peloponesetan.

3/ Lenagoko antzikan
ez dauka erriyak,
beste bat irudi du
orain Donostiyak:
berriro moldaturik
eder, egokiyak,
etxe, kale, plaza ta
eleiz atariyak.

4/ Adiskide maiteak,
au da Donostiya,
orain sei urte t'erdi
erretako erriya:
polita zan lenago,
gaur ederregiya,
beti paregabea
ta maitagarriya.

EUSKARITXOA

Artzayak oroipena
ostegun gizeni,
guztiyok arratsera
guztiyok kantari:
esker onez beteak
gu Donostiyari,
zorion berarekiñ
bere jendeari.

IKUSI: "**Euskal-erria**", 26, 1892, 127 orri-alde.

(1827)

“Después de una laguna de siete años, que abarca el agitado período de 1820 a 1827, nos encontramos el domingo de Carnaval de este último año con una *Comparsa de gitanos andaluces*; el lunes inmediato (*astelen iñauteri eguerdiyan*) con la primera *Fiesta de Zapateros (Zapatari festa)*; el martes con *La Estudiantina de Salamanca*, y el segundo día de Pascua de Resurrección con una *Comparsa de gitanos andaluces en Uba*.

Para todas ellas se acudió al ingenio de D. José Vicente que, cual siempre, proveyó de todos los versos necesarios, ya en castellano, ya en bascuence.”

(1827)

DONOSTIYAN ZAPATARI FESTA
1827-GARREN URTEKOA ASTELEN
INAUTERI EGUERDIYAN

KRISKITIN

(Ariya biyurtzen)

Aritxo ori ondo biyurtu,
biyotz nereko laztana,
eltziak ondo irakin gabe
etxetik nator zugana,
plazara lasterka zuregana
jakinik dantzan zerana. (1)

IRIYARENA

(Larruari koska egitean)

Nere ortztxuak,
ortza nereak,
begira miñ artu,
begira miñ artu,
larrubari kontuz agarratu.

KONTRAPASA

(Ariyari figura ematen)

Nere maitea dago, dago,
tableru gañean, ean,
umore onarekin
kantari lanean,
eskubetan arturik, turik,
pikea ta ariya, iya,
nere kutuntxo goxo
buru galgarriya.

ZAPATARIENA

(Zapatari orman puntada ematean)

Nere zapataritxo maiteak,
ormen sarturik zapata,
polikitxo eta guztiz berdin,
puntuak ondo artu eta
panparroi dauka zapata,
dauka panparroi zapata.

ARRE POTXO

(Soluba biguntzean)

Txatka, txatka ari da
zure matrilluba,
arriyaren gañean
biguntzen soluba,
eta soñutxo orrek
emen barrenean,
txatka, txatka egiten dit
nere biyotzean.

ARIÑ ARIÑ

(*Leun gomarekin zapata apaintzian*)

Leun gomarekin
zapata apaintzen
nere guztizkotxo
ari da oraintxen,
aldin badu biyotza
nik bezin leuna,
lastertxo izango det
etxian laguna.

(1) **Zerala** zion; **zerana** jarri degu, dudarik ga-
be ala bear dualako.

IKUSI: Jose Manterola-ren bertso-bilduma, Do-
nostian, eskuz idatzia. Oar auek jartzen dizkio:

**(Venía inmediatamente un Bolero, por cierto
muy malo, en castellano.)**

(Autor: José Vicente de Echagaray.)

"**Euskal-Erria**", 30, 1894, 94 orri-alde: Kriskitin:
"Ariya biurtutzian"; Iriyarena/2: osotxo neriak;
ta "Larruari koska egitean" falta du; Kontrapasa:
"Ariyari pikia ematian";

"**ZAPATARIKOA**": Polikitxo eta guztiz berdiñ /
puntubak ondo artuta / nere zapataritxo maitiak
/ orman sartu du zapata.

ARIN ARIN: Leungarriarekiñ zapata apaintzian;
1: Leungarriyarekiñ; 3: guztizkoztxo.

(1828)

“La mañana del domingo de Carnaval de 1828 se verificaron la tercera comparsa de pastores (*Iru-garren arzaigokia*) y una *Comparsa de caldereros turcos*.

La primera tuvo lugar en la Plaza de la Constitución, tomando parte en ella jóvenes de ambos sexos, y el Sr. Echegaray escribió la letra bascongada para la *Marcha*, la *Pastorela* y el *Zortziko* que se ejecutaron.” (1)

(1) José Manterola: **Breve noticia** de algunas Comparsas y fiestas de Carnaval...” (“Euskal-Erria”, VIII, 1883).

(1828)

DONOSTIYAN IRUGARREN
ARZAIGOKIA
1828-GARRENEKO IGANDE IÑAUTERI
GOIZEAN

MARTXA

- 1/ Atozte arzayak, ariñ atozte,
guazen guztiyok festara,
Aita Josepe buru degula
Donostiako plazara:
kaletarrai eskaintzen gatoz
amoriyozko doaya,
soñu ederrak, dantza politak,
kanta euskerazko eztiya.

- 2/ Greziyatikan etorri eta
amaikagarren urtean,
irugarrena degu arzayak
Donostiyako kalean:
Iñauteriyen soñubarekin
ixildu gabe kantatzen,
gabaz ta egunaz beti dantzan ta
beñere ez gera nekatzen.

ARTZAI KANTA

1/ Eman genuben itza
lenago bi aldiz,
etorriko giñala
iñoiz edo berriz:
irugarren aldiyan
aurten emen gera,
Donostiar maiteak,
zubek ikustera.

2/ Orain amaika urte
eta orain zortzi,
Donostiya genduben
lenago ikusi:
ordutik oneraño
ez genduben uste
aurreratu zirala
lanak onenbeste.

3/ Etorri geranian
plaza-kantoyera,
dira pozez malkoak
agertu begira:
esan nayagatikan
da esan eziña
gure biyotzak artu
duten atsegiña.

4/ Berrirotik egiten
zauden Donostiya,
ederra bezelaxe
zerade alaya:
gutziz maitagarriya
zedorren jendea,
eziñ izan diteke
dan baño ohea.

EUSKARITXOA

Artzayak oroipena
Iñauteriyari,
goizetik arratsera
dantzan ta kantari:
beti umore ona
gure soñubakin,
adiskide ta maite
donostiarrakin.

ZORTZIKOA

1/ Zortzikoa kantari
menditik kalera,
Donostiyara pozez
gaur etorri gera:
ariñ makil saltoan
Aldapetan bera,
Iñauteriyetako
festak ikustera.

2/ Artzayak izan arren
gure dantzariyak,
dira guztiz lirañak,
datoz txit galayak:
kolore ederrezko
berdiñak jantziyak,
eskubetan politak
makil ta ustayak.

3/ Dantza-leku ederra
olezko biguña,
plazan dago berrero
gaur bertan egiña:
ikusteko nork duben
zankoa ariña,
eta zeñek obeto
darabilen oña.

4/ Zer ikusi geiago
izan dezan festak,
eta luzeagoa
iraupena goizak:
artzayakin batean
datoz gaur modistak,
josten eta bordatzen
langille politak.

5/ Guztiz ondo dakite
egiten kofiyak,
kolorezko zintakin
modara jarriyak:
oi ez bezelakoak
dira neurri-gayak
buru kolokak eta
ilhez estaliyak.

6/ Len, oraiñ eta beti,
kaletar maiteak,
zubentzat esker onez
biyotzak beteak:
oroituko gerade
juan arren urteak,
gure denboran, eta
ondoren semeak.

IKUSI: "**Euskal-Erria**", 18, 1888, 85 orri-alde.

"**Euskal-Erria**", 30, 1894, 57 orri-alde. (Bañan
ontan MARTXA ta ARTZAI KANTA bakarrik dau-
de.)

"**Euskal-Erria**", 12, 1885, 83 orrialde. (Ontan
ZORTZIKOA bakarrik dago.)

"**Kanta-papera**", moldiztegiaren izenik gabea
(Jose Manterola-ren bertso-bilduma, Donosti)
(Ontan ere ez dago ZORTZIKOA besterik.)

(1828)

“En el mes de Junio de este mismo año (1828) se celebraron extraordinarias fiestas, de cuya reseña nos ocuparemos quizás otro día más despacio, con ocasión de la venida de SS. MM., su estancia en esta Ciudad durante varios días y de la colocación de la primera piedra de la nueva Casa Consistorial.” (1)

(1) José Manterola: **Breve noticia** de algunas Comparsas y fiestas de Carnaval...” (“Euskal-Erria”, VIII, 1883).

(1828)

**DONOSTIYAK
ERREGE ETA ERREGIÑAREN
ZORIONEKO ETORRERARI**

ZORTZIKOA

**Biotz nereko seme
maite geyegiyak,
itxoroten dizute
ama Donostiyak:
beso zabal laztanka
atozte guztiyak,
aditzera pozezko
zorion berriyak.**

**Laugarren egunean,
Garagar illean,
degu Corpus bezpera
aurtengo urtean:
egun artan sartuko
dirade goizean
Errege ta Erregiña
Donosti lurrean.**

Gure Errege FERNANDO
oberik eziña,
AMALIA onegi
gure Erregiña:
Donostiarrak egin
arren alegiña,
ez liteke beñere
izan zuben diña.

Denbora laburra da
gelditzen zaiguna,
baña borondatea
aundiya ta ona:
egin dezagun bada
gogoz al deguna,
gabaz eta egunaz
utzi gabe lana.

Erregeak agertzen
diran istantean,
festak asiko dira
lurrean ta urean:
eleizan, itxasoan,
kanpoan, bidean,
gatzeluan, murallan,
kayean, kalean.

Kontxan egongo dira
txalupa ta ontziyak,
banderaz apaindurik
errenkan guztiyak:
eta beren mariñel
jende egokiyak
Erregeri egiten
ongi etorriyak.

Arku bat egongo da
sorotik aldean,
poliki ipiniya
San Martin bidean,
bere pillare eder
berdiñen gañean,
apainduba guztiya
goyen eta bean.

Ezpata-dantzariyak
irtenak bidera
zanko aztal ariñak
ager egitera:
Erregeren aurretik
biurtuko dira
bere Palaziyoko
plaza atarira.

Dantza-modu guztiyak
izango dirade,
egunaz eta gabaz,
goiz ta arratsalde:
brokeadu, jorrari
esku, gizon, andre,
artzai ta beste milla
zeñek bere alde.

Piramide galantak
edo metarriyak
plazaren bi aldetan
berdin ipiniyak:
gutziz ederrak eta
ekusigarriyak,
egunaz itxugarri,
gabean argiyak.

Iru egunez dira
iltzeko zezenak,
Nafarroan arkitzen
diran oberenak:
Españian autubak
arteko gizonak,
pika, banderilla ta
ezpata onenak.

Txit panparroya dago
egiten karroza,
edertuko dubena
aundizkiro plaza:
eman bear diyote
lau idik laguntza,
adar urrezkoetan
loturikan lanza.

Barrenen juango dira
naikeran jantziyak
berrogeyetaño
dama ta galayak:
kantari, soñulari
eta dantzariyak,
etxeandre, manuak, (1)
gazteak guztiyak.

Gabak egun egiñik
gure begiyetan,
argi ta subak eder
plaza kalietan:
baile ekusgarriyak
agintariyetan,
soñubak eta dantzak
leku guztiyetan.

Ez naiz aspertu baña
asko degu gaurko,
utzi dezagun bada
zerbait gerorako:
Donostiyan diranak
dute ekusiko
emen esan ez degun
gauzarikan asko.

(1) Matronas y Genios. (Egillearen oarra.)

IKUSI: **Kanta-papera**, moldiztegiaren izenik gabea. (Bibliothèque Nationale, Paris.)

Paperak eskuz idatzitako oar auek ditu:

(1828) (Manterola-ren letraz.)

(Manterola, 1878: 8ra 16) (beste norbaiten letraz.)

(José Vicente de Echagaray). (Manterola-ren letraz.)

(1828)

A LOS REYES NUESTROS SEÑORES
ARKADIAKO ARTZAYAK

MARTXA

¿Zer gertatzen da gaur Donostian?
¿nondik dator gure poza?
¿nora dijoaz gure begiyak?
¿zeñek darama biyotza?
Gure *Fernando* maitea eta
Gure *Amalia* eztiya
emen arkitzen dirade eta
esana dago guztiya.

Gure egun eta denborarako
zerubak zeukan gordea
zoriyon aundi antziñetako
erak ekusi gabea:
Donostiyara etorririkan
Gure Jaun eta jabea,
Erregeetan dan oberena
eta Erregiña Andrea.

Zor aundiyetan gelditzen gera
onenbeste mesederi,
ez dan bezela baliteke izan
gure eman gaya ugari:
Jauna, artu bada borondate on,
esker eta oroipenak,
Donostiarrak biyotz osotik
eskaintzen dizkizutenak.

ZORTZIKOA

Adorado Fernando
zazpigarrengoa,
¡oh Rey esclarecido
Españiakoa!
Majestad Soberana
biyotz gurekoa,
recibe el homenaje
Donostiakoa.

Estrella de Sajonia,
gure Erregiña,
de las virtudes centro,
zerubak egiña:
de la bondad modelo
oberik eziña,
cándida como tierna
iñor ez adiña.

*Con huéspedes tan magnos
dago Donostiya
de admiración y gozo
beterik guztiya:
a felicidad tanta
ez erakutsiya
mira, ve, palpa, duda,
bere on zoriya.*

*San Sebastian felice,
gaur zure semeak
son los más venturosos,
doayez beteak:
con música los unos,
kantari besteak,
todos entonan loores
zar eta gazteak.*

*Los San Sebastianenses,
adiskide arrotzak,
todos grata memoria
esker on bakoitzak:
con voluntad os rinden
amoriyo pozak,
acogida y obsequios,
gañera biyotzak.*

El Rey Fernando viva
Amaliarekin,
vivan largas edades
biyak alkarrekin:
felices venturosos
bat bestearekin,
y después en la gloria
Jaungoikoarekin.

IKUSI: **Kanta-papera**, moldiztegiaren izenik gabea (Bonaparte-ren bertso bilduma, Chicago).

Eskuz idatzia: J. Manterola-ren bertso-bilduma, Donostin. Azkenean alaxe dio:

(Autor: J. Vicente de Echagaray.)

(1828)

**DONOSTIYAKO GAZTETXOAK
MILLA ZORTZI EUN DA OGEI ETA ZOR-
TZI GARREN URTEKO EGUBERRI
BEZPERA GABEAN (1)**

BASERRI-KANTA

- 1/ Zarrak eta gazteak,
etxian, auzoan,
gaur zoratu dirade
entero beingoan:
aditu dutelako
Jesusen jayotza,
dantzan eta kantari
ojuka dabilta.
- 2/ Nekatzen diraneko
egiñikan suba,
baniatu dediyen
apari-moduba:
munduba egon arren
pozak ernaituba,
ez dago gure tripa
beñere aztuba.

3/ Agertzen dira puska
etxeko guztiyak,
tupiña, burrunzali,
padera, paziyak,
eltze, bombilla, pitxar,
txaltxiñak, kaikubak,
plater, baso, damboliñ,
poto, katillubak.

4/ Sukalde-bazterretan
ez dago eskasa,
bakallaba, txardiña,
bitxigu, legatza,
opill, ogi, taloa,
gaztaña, arraultza,
udarea, sagarra,
esnea ta gazta.

5/ Bultzatzeko ederki
onenbeste jende,
sagar eta mats-urak
guztiz on dirade:
baña eratekoan
kontu neurriyari,
ez gabiltzala gero
lurrean igeri.

EUSKARITXOA

*Donostiyara gatoz
agirando billa,
ez gerade bakarrak
badirade milla:
kapusayak burutik,
eskuban makilla,
soñu eta kantari
arreta, mutilla.*

ZORTZIKOA

- 1/ Arreta, jende onak,
kristabak, atozte,
gure lege adiña
adi ezazute,
milla bat zortzi eun
eta ogei urte,
zortzi geyagorekin
aurten dira bete.

- 2/ Ordu ezkeroko beti
da urterokoa
oroipen atsegifña
kristabakikoa,
berriturik zoriyon
gau arretakoa,
Zeruko Aitak berak
emanikakoa.

3/ Orduban etorri zan
gizonarengana,
guztiya egiñ eta
egingo duena,
zerubak eta lurrak
egiñ zituena,
asiyera azkenik
iñoiz ez dubena.

4/ Bera da santuaren
egiyazko jauna,
zerutarren errege
eta jabe dana,
sortutako guztiya
mendean daukana,
diyotena guztiyak
makurtzen belauna.

5/ Guztiya al dubenak
guztiya emanik,
ez du bear mesede
esker iñorenik:
baña amoriyua
geyegi izanik,
gizonarekin dago
gaur lagun ekiñik.

6/ Ogei ta amairu
urte bizitu zan
umill eta pobrea
neke ta penetan,
beti gizonarekin
zegoen izketan,
egiya erakusten
ordu guztietan.

EUSKARITXOA

*Gaur zelebratzen degu
Jesusen jayotza,
gaur da zoriyoneko
kristabaren poza:
gaur dago atsegiñez
beterik biyotza,
gaur guztiyok alegre,
kontentu bakoitza.*

(1) Gabon-kanta aukeratuak Echagaray-renak dira, ez du inork inon esaten; baina itxura guziaz ari dute. Argatik jarri ditugu liburu ontan.

IKUSI: **Kanta-papera**, moldiztegiaren izenik gabea. (Bonaparte-ren bertso-biduma, New Library, Chicago.)

Paperak, norbaiten eskuz auzen erantsita dauka: "**Donosti... .. 1856 P. Baroja**". Puntuoz jarri degun tokian, paperean ezin irakurri ditugun letra batzuk daude.

(1829)

DONOSTIYAKO GAZTEAK
ERREGEEN GURTEA EDO ADORAZIYOA
BEREN EGUNAREN BEZPERA GABEAN
1829 GARREN URTEAN

MARCHA

- 1/ *Humildes criados, leales, gratos,*
Errege jaun irurenak,
ha trece días que caminamos
Oriyentetik Belena:
al fin llegamos de gozo llenos
zoriyon leku onetan,
y nos hallamos postrados todos
Jaungoikoaren oñetan.
- 2/ *Le adoramos y le rogamos*
arren gaitzala urriki,
le alabamos y le pedimos
barkaziyoa umilki,
nada ofrecemos, porque sabemos
bera dala egillea
de cielos, tierra, ángeles, hombres,
dan guztiyaren jabea.

OTSASTETXOA

- 1/ Gure Jesus maitea
jayo dan orduban,
izar bat agertu da
berriya zeruban:
guztiya da argiya
bere inguruban,
argiya begiyetan,
argiya zentzuban.

- 2/ Argi onen argiyan
argi degu ikusi,
zer modutan aurrera
bear degun bizi:
lege berriya argi
digu erakutsi,
ta Jaunaren graziyan
ipiñi (y) arazi.

- 3/ Miragarritzko argi
ta graziyarekin
bereala diyogu
bideari ekin:
gu izarrarekin ta
izarra gurekin,
Jerusaleneraño
beti alkarrekin.

4/ Erri nombratu artan
geranean sartu,
ezin izan ditugu
begiyak argitu:
zeren gure izarra
zaigun ezkutatu,
eta illundurikan
geraden arkitu.

5/ Herodes aditu ta
naigabez beterik,
aruntza biyurtzeko
ez degu asmorik:
gaiztotasun arrena
guk ezagaturik,
bere aurrera juana
gaude damaturik.

6/ Gero geradenean
andik ateratu,
gure zoriyon poza
laster da herritu:
gure izar argiya
da herriz agertu,
oneraño berari
diyogu jarraitu.

7/ Ona guk nai genduben
Belengo erriya,
ona zori oneko
portale azpiya:
ona billatzen degun
aur jayo berriya,
ona emen zeruba
lurrera jatxiya.

8/ Graziyaz ta doayez
beterik beingoan,
Ama maite Mariya
ona non dagoan:
bere seme ederra
arturik besoan,
ona aita ordeko
Joseren ondoan.

EUSKARITXOA

*Kristabak, berri onak
doaya ta poza,
atsegin zoriyonez
naikeran bakoitza,
esker on aukeretan
beterik biyotza,
zelebratu dezagun
Jesusen jayotza*

ZORTZIKOAN ADORAZIYOA

- 1/ Aurtxo jayo berriya,
zeruko lorea,
zure oñetan dago
Meltxor Erregea:
eman dizu biyotza,
eskaintzen urrea,
ez du bererik ezer,
guztiya zurea.

- 2/ Jesus, zure aurrean
da Gaspar arkitzen,
zaitu adoratzen ta
zaitu alabatzen:
eskaintzen inzensuba,
biyotza ematen,
barkaziyoa eta
graziya eskatzen.

- 3/ Mesias egiazko
jabe on bakarra,
Jesus zerubetatik
jatxitako aurra:
Baltasarren eskutik
ar ezazu mirra,
eta indazu arren
zure on eskerra.

Irurak:

4/ Ona Jesus, gure Jaun
zeruko aundiya,
emen zure oñetan
auspez ipiniya
gizonaren lurreko
aginte guztiya,
galdez barkaziyoa,
eskatzen graziya.

EUSKARITXOA

*Atozte ikustera
atozte jendeak,
Jesusaren oñetan
iru Erregeak:
emen berdintzen dira
aberats pobreak,
berdiñak badirade
gure birtuteak.*

IKUSI: **Kanta-papera**, moldiztegiaren izenik garbea. (Bonaparte-ren bertso-bilduma, The New Library, Chicago.)

"**Euskal-Erria**", XVI, 1887, 7 orri-alde: Martxa: 2/5: pues que sabemos; Otsastetxoā, 4/1: erri sonatu artan; 5/1: Erodesi aditu ta.

(1829)

EGUERRITAKO KANTAK
SANTA MARIA ETA SAN BIZENTE DO-
NOSTIAKO PREMILEIZA BIETARAKO,
BEREN KAPILLAKO MAISU D. PEDRO
ALBENIZ JAUNAK SOÑUBAN IPIÑIAK
1829-GARREN URTEAN

SARARTEA

Artzayak, onera bildu,
arren guztiyok ixildu,
zeren jayo dan aurrak
gure jabe bakarrak
ezin zabalduz begiya
dauka loaren premiya.

Ixill eta motz jolasa,
itza bakan ta eskasa,
ojurik egin gabe
egoten bagerade,
loa laster datorkiyo,
otzak utzitzen badiyo.

Gaur utzirikan Zeruak
jatxi dira Aingeruak
laguntzera Aurrari
lo-soñuba kantari,
artzayak, ixil, arreta,
aditu kanta polita.

AINGERU LOA

Jesus maitea, lo ta lo
egiñ ezazu gozoro,
lo oraiñ eta lo gero,
lo egiñ zazu luzaro.

Semetxo ona, nere bakarra,
Zeruetako lorea,
ona, enetxoa, opill zuriya
biguñ azalik gabea.

Nere kutuntxo laztan maitea,
ona goxoa zuretzat,
zopatxo mami saldaz bustiya,
eztiya ere badaukat.

Zure aita da Zeruko Jauna,
ama mantxarik gabea,
zure seaska arri gogorra,
eta Zu nere jabea.

Zuretzat eta Josepherentzat
ditut, Amatxo Birjiña,
ollo-saldatxo, egazti, arrai,
arraultza, talo, gaztaña.

GAU ONA

Umore ona zoriyon poza
gaurko gabea gurekiñ
oi dira beti, kristau maiteak,
Jesusen Jayotzarekiñ:
aitormen urtero herrituba
gaberdi ernai autuba.

Soñu ederra, kanta berriyak,
ipintzen dira urtero,
denbora eta leku guztiyan,
Jesus jayo zan ezkeru:
oroimen atsegiñ aundikiya
Zerubetatik jatxiya.

Doairik bada mundu onetan
da kristabaren legea,
izanarekin gaurko gabeko
misteriyoan fedea:
sinismen bide berdiñ zuzena
Zeruko atarena.

EUSKARITXOA

*Atozte, guazen ariñ
kontentuz Belena,
atozte ekustera
Jesus jayo dana:
ariñ guazen, atozte
Belena kontentuz,
ekustera atozte
dana jayo Jesus.*

ZORTZIKOA

Eguberri bezperan
gabaren erdiyan
dator Jesus mundura
gure on zoriyan:
estalpetxo batean
Belengo erriyan,
elur aize otzetan
leku irikiyan.

Ama ta Aita daude
gutziz negargarri,
otzak ikara biyak
begira elkarri:
nola berak ez duten
soñean zer jarri,
ez dakite semea
zerekin estali.

Lasto txetu piska bat,
amaren magala,
gañera beyarekin
astotxo bakarra:
oben eta aitaren
asnase makala,
ez da beste gairikan
berotzeko aurra.

Aurtxo au da, kristabak,
gure Jesus ona,
Mesias egiazko
billatzen deguna:
Trinidad Santuko
bigarren persona,
Zeru eta lurraren
Egille ta Jauna.

VILLANCICOS EN CASTELLANO

Solo:

Venid, venid, mis zagales,
veréis el mayor milagro:
el Hijo de Dios nacido
en un miserable establo.

Dúo:

Vamos, vamos y adoremos
al Rey de reyes por quien
será redimido el mundo
y tendrá gloria Belén.

CORO

*Lleguemos, lleguemos
a adorar a Dios,
que dignó humanarse
naciendo entre nos:
con gozo y locura
celebrado sea
prodigio tan grande
que es gloria a la Aldea.*

IKUSI: **Kanta-papera**, moldiztegiaren izenik gabea. (Bibliothèque Nationale, Paris.)

Eskuz erantsita oar auek ditu:

(Manterola, 1878, 8ra 16.)

(Compuestos por Dn. José Vicente de Echagaray.)

Gure iritzian beintzat, sail ontako bertso guziak ez dira Echagaray-k asmatuak, baizik Echagaray-k erriaren aotik jasoak, batzuk beintzat.

(1830)

“El domingo de Carnaval de 1829 se celebró *El Triunfo del defensor de la Cruz Demetrio Ispilanti*, representado en la Plaza nueva de San Sebastian por una comparsa de griegos y turcos, con baile, música militar y canto.

Con tal motivo se escribieron sobre el asunto un *Himno* y *Coro* en castellano y otro en bascuence, y aunque parece raro, no fué autor de ellas el tantas veces citado D. José Vicente de Echegaray. Ignoramos quién lo fuera.

El *jueves gordo* (18 de Febrero de 1830) hubo una *Comparsa de ciegos valencianos*; al mediodía del domingo de Carnaval (*igande iñauteri eguberdian*) se celebró la primera *Comparsa de oficios o artesanos* (*Langille maisuben festa*), y el lunes inmediato una *Comparsa de panaderos franceses*, que se transformó el martes en *Comparsa de manolos*.

La bonachona musa del simpático Echegaray proveyó a todas estas fiestas, escribiendo para la primera una *Tirana* con *Estrivillo* y *Recitado*, y un *Bolero*; para la segunda, *Marcha*, *Belaun-chingoa*, *Kriskitin*, *Chulo-chulito* y *Zortziko*, todo en bascuence; *Marcha* y la *Cancion del Trabajo*, con su *Estrivillo*, para la tercera; y una *Tirana* y *Bolero* para la cuarta.

He aquí por vía de muestra, las cuartetos 1.^a, 2.^a, 5.^a y 6.^a de la *Tirana* compuesta para la *Comparsa de ciegos valencianos*:

A San Sebastian llegaron
otros ciegos valencianos,
cuando ella no existía
ahora catorce años.

Sólo existían las ruinas
para renacer de entre ellas
otra linda ciudad nueva
la más bella de las bellas.

Entonces entre las ruinas
te cubrían los escombros,
hoy te descubres hermosa
de cuantos te ven asombro.

Tus casas, calles y plazas
admiran a cuantos miran,
su buen gusto y simetría
a cuantos miran admiran.

Ahí van como muestra del *Bolero* las seguidillas
1.^a y 3.^a, que dan alguna noticia del carácter de
nuestras fiestas locales de Carnestolendas:

Mascaradas vistosas,
bellas comparsas,
en esta ciudad llenan
calles y plazas,
y las noches
en bailes muy lucidos
son elegantes.

Decimos y diremos
en todos tiempos
que aquí no se distinguen
mozos y viejos,
alegres todos
bailan y se divierten
en paz y unidos.

Los versos podrán ser malos, pero son muy gráficos y pintorescos como la mayor parte de los del buen Echegaray.

En la *Comparsa de oficios* tomaron parte ocho parejas de ambos sexos, hallándose representados los siguientes oficios: el zapatero, carpintero, linternero, tornero, herrador, el afilador, el vendedor de ropas y el calderero.

La siguiente estrofa de la *marcha* viene a confirmar lo que hemos expuesto y repetido sobre el Carnaval en San Sebastián:

Beti pakean, beti naikeran
Donostiako jendia,
nola egunean ala gabean
atsegin da ekustia:
Iñauteriyen ez da ezagun
nor dan zarra, zeñ gaztea,
giza-semea, emakumea,
aberats edo pobrea.

Por último, como muestra de los versos compuestos por el señor Echegaray para la *Comparsa de panaderos franceses*, ahí va la *Marcha*, literalmente copiada de su colección completa:

1/ Alon an aban marchè,
alon moncher bolanchè,
e cant tut sera arranchè
a trabaler comancè:
pur gañar de bon archan
traballe vus an marchan,
alon mon petit anfan
chanté pur le Carnabal.

2/ Le bon Carnabal chanton
san cumpliman, san fason,
alon, compañon, danzon
sote don mon bon garzon:
che sui bocu fateguè
alon bon metre cet asè
alon buar pur finicè
a votre bone santé." (1)

(1) José Manterola: **Breve noticia de algunas Comparsas y fiestas de Carnaval...** ("Euskal-Erria", 8, 1883, 97 orri-alde.

(1830)

DONOSTIAKO GAZTEAK
LANGILLE MAISUBEN FESTA,
IGANDE IÑAUTERI EGUERDIAN
1830-GARREN URTEAN

MARTXA

- 1/ Erritar gure Donostiako
jende artzalle maiteak,
ditugu guztiz gauza ederrak
ugari eta merkeak:
soiñ egokiyak, zapata pollit,
armariyo eta kutxak,
barrika, parol, pertza, paziya
eta guraize txorrotxak.

- 2/ Donostiarrak oi dira beti
umore onean oitubak,
Iñauterian ageri dute
bertako kanta soñubak:
gaur bertan ondo degu erakusten
bere langille maisubak,
goizetik arrats geroni eta
andreak dibertitubak.

3/ **Beti pakean, beti naikeran**
Donostiako jendea,
nola egunean ala gabean
atsegin da ikustea:
Iñauteriyen ez da ezagun
nor dan zarra, zeiñ gaztea,
giza-semea, emakumea,
aberats edo pobrea.

BELAUN-TXINGOA

1/ **Zortzi langille maisu guztiyak gazteak.**
eta emazteak,
arintzen nekeak,
gatoz plaza berrira umore onean,
dantzari lanean,
kantari nekean;
soñubarekin gera alegre dantzatzen,
ez gera nekatzen,
ez ere aspertzen;
salto bada, gizonak ta andreak saltu
egiñ lana, kanta
ta nekean dantza.

2/ Dendariyaren andre lanera egiña,
guztiz jostun fiña,
da esku ariña;
zapatariyak duben betiko laguna,
andretxo kutuna,
enterozko ona;
arotzaren andrea lana egin naya,
arkitzen du gaya
gerriko linaya;
linterna-egilleak duben emaztea,
moduzko gaztea,
biziro maitea.

3/ Tonorgille andrea lanean azkarra,
maite du senarra,
biyotztxo bakarra,
da perratzallearen andretxo gajoa
txit lagun gozoa,
entero jaso;
paziyagillearen emazte eztiya,
ondo ikasiya
konpontzen paziya;
txorrotxgillea nola len zan alarguna,
artu du laguna
gazte diruduna.

KRISKITIN

1/ Eguna aisa, denbora laster
igarotzen da lanean,
gogoarekin jardun ezker
egitekoa danean:
gogoak arintzen du nekea
eta sortzen lanbidea.

2/ Badegu gogo, lana badegu,
ofiziyoko jendeak,
argatik gaude beti kontentu
gizonak eta andreak:
egunaz gogotik bearrean
eta deskantsuz gabea..

TXULO-TXULITO

1/ Festara gatoz festara,
eta nor bere lanera
Donostiako plazara,
gero ondoren dantzara;
penak utzi ta
maite polita,
atoz zu nere ondora.

- 2/ Neke ondoren dantzatzen
dirade penak aztutzen,
zankoak dira arintzen
eta ezurak biguntzen:
 atoz nigana,
 maite laztana,
lagun zadazu kantatzen.

ZORTZIKOA

- 1/ Donostiako plazan
dira gaur ageri
gauza merkeak eta
naikeran ugari:
lenbiziko atsegiñ
eman begiyari,
gero diru ederra
ekartzeko guri.
- 2/ Zernai gauza badegu
zubentzako diña,
puntada txearekin
modara egia:
kasaka ta pantaloi
oyalezko fiña,
galtza, lebita, kapa
eta esklabiña.

3/ Ditugu botak eta
zapata sendoak,
ixkindokiyak, kutxak
eta armariyoak:
pitzarrak, inbutubak,
parol eskukoak,
paziya txiki eta
aundi kobrezkoak.

4/ Pertzak ditugu neurri
guztiyetaoak,
sulla, barrika, barril
eta tiñakoak:
arri leunak, bestek
ez bezelakoak,
guraize ta labanak
txorrotxtutzeoak.

IKUSI: "**Euskal-Erria**", XVI, 1887, 145 orri-alde.
(Argitaraldirik zarrena ezta, bañan bai osoena,
ta, seguru asko, egillearen eskuz-idatziaren bistan
egiña gañera; argatik gure argitaraldi ontarako
giaritzat artu degu.)

Kanta-papera, moldiztegiaren izenik gabea.
(Manterola jaunaren bertso-bilduma, Donostin.)
Echagaray-ren beraren denborako papera da.

Manterola-ren eskuz idatzita auxe du:

(J. V. de Echagaray.)

Aldaketak: falta ditu: Martxa-ren irugarren
bertsoa; 1/7: perra, paciya; Belauntxingoa-ren le-
nengo bertsoa; Txulo-txulito osoa. Izenean dio:
igande iñauterian; Martxa 1/7: perra; Belaun-

-txingoa 2/4: Zapatariyak beti duben laguna;
2/6: enteroko; 3/1: Tonergille; 3/3: biyotzeko;
Zortzikoa 4/1: Perrak.

Bonaparte-ren bertso-bildumak ere badu bertso-paper au.

"**Euskal-Erria**", 38, 1898, 126 orri-alde: Belaun-txingoa 2/3: du esan ariña; Zortzikoa 1/4: nairkuak ugari.

(1830)

EGUERRITAKO KANTAK (1)

SARARTEA EDO IDIARENA

1/ Arren laster atozte,
adiskide maiteak,
utzi zuben nekeak,
larga zeren lanak,
aditu diranak,
berri, berri,
zerubak emanak.

2/ Bei-elea bildurik
gaur illunabarrean,
ukullu bazterrean
nagoala lotan,
amets jolasetan,
Jesus, Jesus,
agertu zait bertan.

3/ Beleneko sarreran
dago jayo-lekuba,
antxe dago zeruba,
an ama maitea,
an aita-ordea,
 antxe, antxe,
Erredentorea.

4/ Asnas-lurriñarekin
berotubaz lastoa,
daude idi, astoa,
ardia, bildotxa,
bigundu naiz otza:
 guazen, guazen,
lasterka bakoitza.

ARTZAIGOKIA

1/ Artzai maiteak, zorion,
gure deya du zerubak,
utzi agudo txabolak
eta zuben ganadubak.

2/ Artzaiak, ariñ lasterka
guazen guztiok Belena,
Jabe Jaun bakar gurea
adoratzera aurrena.

- 3/ Jaso biotzak batera,
begiak umildu bera,
eta belaunak lurrera,
guazen Jaunaren aurrera.
- 4/ Agudo guazen bidean,
guazen artzaiak kontentuz,
zorion gurean dator
gaur gizonagana Jesus.

KOPLARIA

- 1/ Aterik ate nabill
Jesusaren galdez,
eziñ iñon jakiñik
jayo dan edo ez:
nabill etxerik etxe
Jesusen galdezka,
erregalo egin nai
niyoke siaska.
- 2/ Ditut troxa oyalak,
arkume-larruba,
aurraren berogarri
ondo legortuba:
amaren saldatxoaz
ez nago aztuba,
eta det aitarentzat
apari-moduba.

EUSKARITXOA

Agur, aurtxoa, salbe, Jesusa,
zerala ongi etorri,
zeruko lore zuri ederra,
salbe guztiok zedorri.

ZORTZIKOA

- 1/ Egiñ arren gizonak
bere alegiña,
izan arren gogoa
borondate diña,
ez du erakutsiko
bear dan adiña,
miragarri gaurkoa
Zerubak egiña.

- 2/ Lendanaz du Maria
Jaunak bedeinkatu,
bere berdiñik ez du
lurrean arkitu:
Espiritu Santuak
gero du argitu,
gaur da ama egiñik
birjiña gelditu.

3/ Mariagandik dator
gure Egillea,
asierarik eta
azkenik bagea:
berea da zeruba,
lurra're berea,
berarena guztiya,
goya eta bea.

4/ Egiña dago bada
Jaunak aginduba,
zabal irikirikan
daukagu zeruba:
barkatuba bertatik
dago bekatuba,
egiaz biotzetik
badator damuba.

(1) Estos villancicos, puestos en música por el afamado maestro D. Pedro Albeniz, se cantaron en 1830 en las parroquias de Santa María y San Vicente de esta Ciudad. (Euskal-Erria-ren oarra, 17, 1887, 530 orri-alde.)

Santa Maria eta San Bizente Donostiako Premieleiza bietarako beren kapilla maisu On Pedro Albeniz jaunak soñuban ipiñiak, 1830-garren urtean. (Euskal-Erria-ren oarra, 19, 1888, 539 orri-alde.)

IKUSI: "Euskal-Erria", 17, 1887, 530 orri-alde.
Koplaria 1/2: Jesusen galdezka. (Oso nabarmen

dago punturako gaizki dagoana; ala, urrengoan dagoan bezela jarri degu.)

EUSKARITXOA, 1: **Euskal-Erria**-ren ale onek "salbe, o Jesus" jartzen du, eta besteak berriz "salbe, Jesusa". Bigarren era ontan jarri det, garai artan "Jesus" bearrean, "Jesusa" esaten zala-ko, eta, ori ez jakiñik nunbait, **Euskal-Erria** ale onek ori aldatzen ibilli dala ematen dualako.

"**Euskal-Erria**", 19, 1888, 539 orri-alde. Sarar-tea 1/4: zeron; Koplaria 1/8: sieska; Zortzikoa 2/6: arkitu.

(1831)

GAMBRACO GAZTEAK (1)
1831-GARREN URTEKO EGUBERRI
BEZPERAN

ARTZAIGOKIA

Gure Jesus maitea
gaur dator mundura,
Beraren izenean
gu ate ondora:
urtero beon galde,
etxe barrengoak,
eman dizayotela
gau on Jaungoikoak.

EUSKARITXOA

Salbe, adiskideak,
jende onak, abur,
etxe onetan Jesus
arki dedilla gaur,
etxeakoak, adiyó,
Pazkua jai ona,
bake, amoriyua
eta osasuna.

ZORTZIKOA

Ez dago gaur negarrik,
pena, naigaberik,
samiñik ez dago gaur
eta dolorerik:
guztia da kontentu,
doai atsegiña,
biotz barrengo poza
geyago eziña.

Aingerubak, artzayak,
zerutar ta gizon,
guztiak nai dute gaur
zelebratu gabon:
nornai da soñulari,
koplari edozeiñ,
iñork iñon ez daki
gaur nor ote dan zeñ.

(1) "**Gambrako gazteak** son indudablemente jóvenes pertenecientes á la música local de los **Gambaros**, que existía por aquella fecha en San Sebastián, y que tomó su nombre de la palabra euskara **ganbara**, por ser un **desban** el punto de sus reuniones. (Euskal-Erria-ren oarra.)

IKUSI: "**Euskal-Erria**", IV, 1881, 236 orri-alde.

(1832)

“El domingo de Carnaval de 1832 hubo una nueva *Comparsa de jardineros*, para la cual compuso una *marcha* y *letrilla* castellanas el señor D. Paulino de Mutiozabal, y un *zortzico* de nueve estrofas el señor Echegaray; en medio del tablado central de la Plaza, convertido en jardín, se improvisó un bonito kiosko de flores, según nos refiere el poeta en los siguientes versos:

“Baratzan bertan degu
egiña berriro
lore etxolatxua
polita bizi-ro...” (1)

“La segunda comparsa de jardineros se celebró el domingo de Carnaval del año 1832, y tuvo por objeto celebrar el feliz alumbramiento de S. M. la Reina D.^a Cristina, y el natalicio de la infanta D.^a María Luisa Fernanda.

Esta comparsa, como la anterior, se verificó en la plaza nueva o de la Constitución y suponemos que, como la precedente, sería dirigida por los mismos Sres. Leizaur, Yun y Echegaray.

La *Marcha*, *letrillas* y *coros* en castellano fueron compuestos por D. Paulino de Mutiozabal, y el *zortzico* en bascuence por D. José Vicente de Echegaray.

(1) José Manterola: **Breve noticia de algunas Comparsas y fiestas de Carnaval...** (“Euskal-Erria”, VIII, 1883).

Ignoramos quién fué el autor de la música, si el Sr. D. Pedro de Albeniz, organista a la sazón de ambas parroquias, o su sucesor el popular maestro Santesteban. De todos modos, los que deseen conocer la del *zortzico*, la encontrarán en la *Colección de aires bascongados*, de este último, en la que figura con el número 49.

Esta vez como la anterior, se erigió un tablado en la plaza sobre el que se improvisó el jardín, en cuyo centro se levantó un elegante templete.

Los trajes debieron ser análogos a los de 1818, y en la comparsa debieron tomar parte 24 parejas de ambos sexos." (2)

(2) "Recuerdos del Carnaval de San Sebastian — Las Comparsas de Jardineros" ("Euskal-Erria, X, 1884).

COMPARSA DE JARDINEROS
CON CANTO Y BAILE EN LOS PUBLI-
COS REGOCIJOS, CON QUE ESTA M.N. Y
M.L. CIUDAD DE SAN SEBASTIAN CE-
LEBRA EL FELIZ ALUMBRAMIENTO DE
LA REINA NUESTRA SEÑORA

MARCHA

De Flora bella los que cultivan
los gratos dones en dulce paz,
llenos de gozo marchan festivos
nuevas venturas a celebrar.

El gran *Fernando* y *Cristina* hermosa
hoy a la España propicios dan
otra flor tierna, fresca y lozana,
joya preciosa, pura heldad.

En sus gorjeos los pajarillos
no cesan ledos de publicar
la nueva dicha que Hesperia toda
con tal suceso llega a gozar.

Y el Urumea, claro y risueño
que el valle ameno besa jovial,
en tono dulce y blando murmullo
tan fausto caso quiere cantar.

Las ninfas tiernas, lindas, graciosas,
de la muy pulcra San Sebastian,
engalanadas vienen en tropa
nuestros festejos a realzar.
Marchemos todos a los vergeles
bellas guirnaldas a preparar,
y entre albas rosas y verde mirto
vistosos bailes a ejecutar.

LETRILLAS

Cual pimpollito tierno
aparece lucida
De *Fernando y Cristina*
nueva prenda de amor;
y el enojoso invierno,
sorprendido por Flora,
pierde su saña torva,
su fiereza y rigor.

Al ábrego inclemente
el céfiro sucede,
al hielo y a la nieve
bella y fragante flor;
en gracias se convierte
el triste y mustio prado,
marchito, despoblado
por frígido aquilón.

Natura ufana ostenta
todas sus galas ricas
por celebrar con risas
tan dulce aparición:
festiva se presenta,
magnífica, pomposa,
cual en Abril hermosa
ornada de esplendor.

Del Urumea alegre
los fieles jardineros
con bailes y con juegos
expresan su placer:
sus pechos siempre albergue
fueron firme y seguro
del amor tierno y puro
que tienen a su Rey.

CORO

*Del son de nuestro acento
unánime, leal,
puéblese el raudo viento,
llénese el ancho mar;
y el eco lisonjero
lleve al Alcázar Real
el viva placentero
de nuestra fiel Ciudad*

ZORTZIKOA

1/ Erderaren ondoren
gerok ipiñia
degu baratzgilleak
zortziko berria:
euskaldunaren kanta
biotz pozgarria,
itz neurtu dantzarako
gutziz egokia.

2/ Uda berria eder
agertu da aurten
Españia guztian
denbora baño len:
lore gaiñ gañeko bat
jayo da Madriden,
biotzean daukagu
legor ez dedien.

3/ Uda berri ederra,
gure 'doai ona,
dezu biguntzen otza,
alaitzen eguna,
garaiturik neguko
gau luze illuna,
kanpoa loratzen ta
poztutzen gizona.

4/ Uda berrian datoz
pozturik txoriak
egun sentiarekin
aundi ta txikiak:
milla moduz aitortzen
gure on zoriak,
arbola gañetara
kantari guztiak.

5/ Orain uda berrira
urturik elurra,
sustraia samur dago,
indarrean lurra:
guztia dator berde,
loratsu, ederra,
aziya, landarea,
osto ta belarra.

6/ Uda berriko dago
baratza gurea,
eziñ arki diteke
beste bat ohea:
belar onak oparo,
ugari lorea,
usaya gozo eta
eder kolorea.

7/ Baratzen bertan degu
egiña herriro
lore etxolatxua
polita biziro,
naikeran egoteko
udan egunero
eralditxo batean
nekatu ta gero.

8/ Ez gaude, damatxuak,
zubetzaz aztubak,
lore-mordo ederrak
dauzkagu bildubak:
belar usai gozoko
aukeran batubak,
sortatxoak egin ta
zintakin lotubak.

9/ Artu, jende maiteak,
Donostiakoak,
oroipen aitormenak
biotz gurekoak,
egiazko naitasun
borondatezkoak,
esker on eta poza
amoriozkoak.

IKUSI: **Kanta-papera**, moldiztegiaren izenik gabe. (Bonaparte-ren bilduma, The New Library, Chicago.)

Kanta-papera, moldiztegiaren izenik gabe au ere. (Manterola jaunaren bertso-bilduma, Donosti.)

Onek, euskerazko bertsoak bakarrik ditu, eta Manterola-ren eskuz idatzita, auxe du: (**Compuesto por D. José Vicente de Echagaray, para la Comparsa de Jardineros celebrada en San Sebastián, el Carnaval de 1832.**) Ta kanta-paperaren izena: JARDINZAYEN ZORTZICOA.

"Euskal-Erria", 10, 1884, 73 orri-alde.

(1832)

“El martes inmediato (*zanpanzart eguerdian*) se celebró la segunda *Comparsa de oficios*, para la cual compuso Echegaray *marcha* y *zortziko*. De este último formaban parte (aunque se suprimieron en lo impreso, probablemente por el deseo de no extenderlo más de una hoja) los siguientes bellísimos *zortzikos*, que más tarde se hicieron populares y que han llegado hasta nosotros:

Festarik bear bada
bego Donostia,
betikoa du fama
ondo merezia:
bestetan ez bezela
emen gazteria
amaren sabeletik
dator ikasia.

Donostiarrak dute
aukera doaia,
urtero asmatzeko
festa bat berria:
beren modutxoa da
guztiz egokia,
zer-nai gauzetarako
arkitzen du gaia." (1)

(1) José Manterola: **Breve noticia** de algunas Comparsas y fiestas de Carnaval..." ("Euskal-Erria", VIII, 1883).

(1832)

**DONOSTIAKO GAZTEAK
LANGILLE MAISUEN FESTA 1832-GA-
RREN URTEKO ZANPANZART
EGUERDIAN**

MARTXA

- 1/ Oraiñ urte bi etorri giñan
Zalduniote goizean
Donostiara, andre ta gizon
kantari eta lanean:
Aurten berriro gatoz Plazara
Zanpanzart bazkal aurrean
kanta, soñu eta dantzakin
pozez umore onean.

- 2/ Gurekin dator aita Josephe,
agure gordiñ maitea,
maisú aditu aspaldikoa,
langille pare bagea;
ona Josephe, gizon zintzoa,
nagusi prestu gurea,
nekean pizkor, jolasean zar
eta festetan gaztea.

BELAUN-TXINGOA

Zortzi langille maisu, guztiak gazteak,
eta emazteak,
arintzen nekeak,
gatoz plaza berrira umore onean,
dantzari lanean,
kantari nekean.

Soñubarekin gera alegre dantzatzen,
ez gera nekatzen,
ez ere aspertzen:

salto bada, gizonak, ta andreak, salta,
egiñ lana, kanta,
ta nekean dantza.

IRU DAMATXO

1/ Donostiako festara gatoz
berri onakin kantari,
emen lendanaz jakin dirala
plazan ondo da ageri;
Infanta maitea, jayotxo berria,
salbe, ta ongi etorri.

2/ Infantatxoa zeren dan jayo,
Donostiako jendea,
festan egunaz, gabean festan,
dago naikeraz betea:
atsegiñ, zorion, biotz leyaleko
pozaren ezin gordea.

ZORTZIKOA

- 1/ Zortzi ofiziotan
degu gure lana,
atozte lenbiziko
dendariagana:
eramango dezute
beti gauza ona,
burutik oñetara
jazteko persona.
- 2/ Zapatariak ditu
bizirosendoak
bota ederrak merke
eta modakoak:
zapata polit, larru
oyal sedazkoak,
ondo erribetatu
eta neurrikoak.

3/ Arotzak ugari ta
merke dauzka gayak,
egiteko apalak,
kutzak eta oyak:
iskindokiak, mairak,
ate, leyo, mayak,
alki, armarioak
eta arilkayak.

4/ Kupelgilleak ditu
zuben serbitzeko,
tonel, barrika, barril,
sulla ta tiñako:
ontzi burniz josiak
bañubak artzeko,
ustai eta zumeak
lana egiteko.

5/ Itxarkizayak dauzka
parol eskukoak,
inbutu, kafe-ontzi,
olio-txarroak,
kandelero, neurriak,
platerak, potoak,
alanbre-sare eta
enzuluzetxoak.

6/ Perratzalleak bere
iltze ta perretan
egitekoa urri
dauka plaza ontan:
bañan beti ugari
ordu guztietan
mandazai, idizai ta
ostalarietan.

7/ Pazigilleak berak
nai duben adiña
zarrak adobakitzen
badu zer egiña:
txokolateratxoa,
pertzta, zartagiña,
pazi, tupi, kaldera
eta kalderiña.

8/ Txorrotxgillea bere
arri leunean
bururik jaso bage
ari da lanean:
eguna argitzetik
illundu artean
guraize labanakin
kale-kantoyean.

9/ Adio, Donostia,
asko da, jendeak,
despeditzen zaituzte
oraiñ langilleak:
esker onez beterik,
gizon ta andreak,
oroituko gerade
joan arren urteak.

IKUSI: **Kanta-papera**, moldiztegiaren izenik gabea. (Bonaparte-ren bertso-bilduma, The New Library, Chicago.)

"**Euskal-Erria**", 18, 1888, 115 orri-alde. Martxa: 2/4: pare gabea; 3/5: ixkindogiak; 4/2: zubeak serbitzeko; 9/2: aski da, jendeak.

"**Euskal-Erria**", 34, 1896, 115 orri-alde: Martxa: 2/4: pare gabea; Iru damatxo: 2/4: dago naigeaz betea; Zortzikoa: 3/5: iskindogiak; 4/2: zubeak; 5/1: Itxas gizayak dauzka.

(1832)

Estos villancicos se cantaron con música del Sr. Delgado.

Gambrako gazteak eran indudablemente jóvenes pertenecientes a la música local de los *Gámbaros*, que existía por aquella fecha en San Sebastian, y que tomó su nombre de la palabra euskara *ganbara*, por ser un desván el punto de sus reuniones. (Euskal-Erriaren oarra.)

VILLANCICOS EUSKAROS
GAMBRAKO GAZTEAK
1832-GARREN URTEKO EGUEIARI
BEZPERA GABEAN

PASTORELA

1/ Erri, baserri, borda,
soro zelayetan
txabola, mendi, bide,
bazter legorretan,
itxasoan, ontzian
eta txalupetan,
umore ona da gaur
leku guztietan.

2/ Eskallera-buru ta
ate-ondoetan
jendea franko dabil
agirandoetan:
eta gu soñubakin
alde guztietan,
gelditubaz kantari
kale-kantoyetan.

Estribillo

Guazen lasterka, guazen,
Belena kontentuz,
soñu eta kantakin
ikustera Jesus.
Atozte laster, guazen
pozez Belenera,
kanta ta soñubakin
Jesus ikustera.

Coro

Atozte laster, guztiok ernai,
irazar bedi bakoitza,
gaurko gabeen zelebrazten da
Jesus onaren jayotza:
zerutik datoz bakea eta
atsegiñ, zorion, poza,
soñuba, kanta, tinbal, atabal,
dantza, ojuba, jolasa.

ZORTZIKOA

1/ *Noche maravillosa,*
zorionekoa,
admirable prodigio
zerubetakoa:
iris de paz eterna
kristabakikoa,
origen y principio
lege herrikoa.

2/ *Preñez inexplicable*
kastidatekoa,
de Madre virgen pura
mantxa bagekoa:
nacimiento divino
ta Jaungoikozkoa,
obra incomprensible
gaur gau erdikoa.

IKUSI: "Euskal-Erria", VII, 1882, 395 orri-alde.

(1833)

IRU ERREGE GABEAN, DONOSTIAN
ILION BERRIKO GAZTEAK
1833-GARREN URTEAN

KANTARIDIA

Esna, mutillak, ernai, lagunak,
ariñ atozte gugana,
guztiok pozez aitor dezagun
gure doai zoriona:
adiskideak, jende maiteak,
Eguberriren urrena
oroikarria izendatua
iru Errege eguna.

ARTZAIGOKIA

I/ Aurten ibilliya da
jendea naikeran,
agirandoen billa
Errege-bezperan:
jakia, sagardoa,
ardo aukeran,
afaldu eta gero
trago onak eran.

2/ Biotza zabaldurik
jan eta ondoan,
barrengo atsegiña
laster da kanpoan:
kontentuz beterikan
gorputza beingoan,
naigabe mintasunik
ez dago gogoan.

EUSKARITXOA

Agure, Errege gaba,
beto Erregeak,
salbe, Orienteko
jaun agintariak:
oroipena Ilion
berriko gazteak,
batzuek soñu jotzen
kantari besteak.

ZORTZIKOA

1/ Iru errege datoz
neketan bidean
amabi egun eta
amabi gabean:
izar argi bat dute
laguntzen aurrean,
berak ipiñi ditu
Belengo lurrean.

2/ Amaren besoetan
ikusirik Jauna,
irurak jatxi dute
lurrera belauna:
biotzak jasorikan
aurtxo arengana,
umill egin diote
eskario bana.

(1833)

DONOSTIAKO GAZTEAK JESUSEN
JAYOTZARI
1833 GARREN URTEKO ONENZARO
GABEAN

PASTORELA

- 1/ Ernai, guztiok, ez da gaur lorik,
alegra bedi bakoitza, 3
atozte bada zelebratzera
Jesus onaren jayotza:
ager dezagun, aitor dezagun
alegre zorion poza,
soñuarekin jaso dezagun
Jaunarengana biotza.
- 2/ Gaurko gaua da oroigarria
zeruan eta lurrean,
Aingeruakin daude gizonak
Jesus onaren oñean:
guazen gu ere ikus dezagun
portal azpian lurrean
Santu guzien zeruko Jauna
ukullu pobre batean.

CORO

Ez da orain sortua,
ez da aurtengoa,
baizik da lege zarra
denboretakoa,
agirando galdea
Onenzarokoa.

ZORTZIKOA

1/ **Beti umore ona**
oi degu gazteak,
ez dakigu zer diran
pena naibageak:
eta gaur zorionez
beingoan beteak,
soñuakin kantari
naikera gureak.

2/ **Poza ezin gorderik**
gaurko gauarekin
kristabaren izena
izan utsarekin:
Jesus, Maria, Jose
dirade gurekin,
adoratu ditzagun
biotz garbiakin.

3/ Zeru eta lurraren
Jaun ta jabe dana,
digun amorioaz
egiñik gizona:
Ama Birjiñagandik
dator guregana,
Trinidade Santuko
bigarren persona.

4/ Egiazkoa bada
gure eskarioa,
damutasun gurea
bada ziñezkoa,
zabalduko digute
bide zerukoa,
degun beren gloria
sekuletakoa.

CORO

Jesus Salbadorea,
Salbe zure ama,
eta aita-ordeko
zeruak emana.

IKUSI: **Kanta-papera**, moldiztegiaren izenik gabea. (The New Library, Chicago.)

Kanta-paperaren atzean, eskuz idatzita, oar
auek daude: **Echegarai** ta **Donostian ... a 3 July**
1856 / Baroja.

"Euskal-Erria", 43, 1900, 548 orri-alde: Pastorela: 1/6: agertu zorion poza; **Coro** bearrean **Kantaridia** dio. Zortzikoa: 1/4: Naigabeak. Onek esaten du kanta auek 1833-ngoak dirala, ta ola jarri degu.

Chicago-ko kanta-paperak 1856 urtekoa da. Beraz, bearbada 1833-ngoak izango dira, bañan kanta-paperan 1856 urtean agertuko ziranak.

"Euskal-Erria", 59, 1908, 586 orri-alde. Onek **Pastorela**-ren bi bertsoak bakarrik ditu, ta 1853-garren urtean kantatu zirala dio.

Manterola-k onela dio:

“Echagaray, que profesaba ideas liberales, ha dejado entre sus canciones políticas sus *Chapel-churi euscaldun baten Ay, ay, ay, cantac*, (escritas en 1838); su *Carlos Bostagarren erregue deitzendanari Euscaldunac zortzicoa* (1838), y una composición en vascuence y castellano *A la paz*, escrita en 1839, todas las cuales fueron impresas sin nombre de autor.” (1)

1838-ngoia, “*A la paz*” deritzan ori, ez degu iñon ere arkitu. Bañan beste biak bai.

Beste bi oyetako lenengoan, iduripenez karlista ukatu edo ernegatu bat asmatzen du, onek esango lituzkenak bertsoan jarriaz.

Bigarrena izugarria da; Echegaray-k euskeraren itzik zital-amorratuenak bildu ta Don Carlosen gñera iraultzen ditu. Ori zergatik ote dan jakiten errez dago:

1837-ngo Mayatzean, Don Carlos Euskalerritik aterazan 17 batalloyekin eta milla bat zaldizkoekin. Mayatzaren 24-an, Huesca-n, karlistak liberalai jorraldi latza eman zieten, auen buru, Iribarren jenerala, bertan zauritu ta gero ilda geraturik.

Urrena, Garagarrillaren 2-an, Barbastro-n, karlistak berriro garaille gertatu ziran, liberalak Oráa jenerala buru zutela.

(1) José Manterola: “CANCIONERO VASCO” Segunda serie, Tomo IV, pág. 55.)

Orregatik dio Echegaray-k 6-gn bertsoan: “Jaca-tik Huesca-ra, andik Barbastro-ra”. Eztakigu Jaca zertako aitatzen duan; karlistak ez baitziran andik pasa.

Bañan, liberalak jipoituak izanik, bi burruka oyek doi-doi aitaturik, Lerida-ko Gra deritzayon erriko burrukaz pozez eta luzaro mintzatzen da, eraso ontan liberalak —barón de Meer jenerala buru zutela— irabazi zutelako. Ori San Antonio bezperan gertatu zan.

Cabrera apaigai izana zan. Ori naikoa du Eche-garay-k ari “apaiz ernegatua” deitzeko 8-gn bertsoan.

Bañan, Don Carlos eta Cabrera andik pixka ba-tera, San Pedro egunean, alkartu ziran, Cherta de-ritzayon errian, Don Carlosen batalloyak Ebro ibaya txalupetan igarotzen ari ziran bitartean, Cabrera-k Borso jeneral liberala menderatuaz.

Manterolak ala esaten badu ere, ez degu uste Echegaray-k bertso auek 1838-gn. urtean jarri zi-tuanik. Izan ere, ez du ez beste burrukarik eta ez beste iñolako gertaerarik aitatzen, ainbat alako 1838 urtea baño len gertatu izanagatik.

Urrengo burruka Chiva-n (Valencia) izandu zan, Uztaillaren 15-an; ontan liberalak —Oráa jenerala buru— gertatu ziran garaille.

Urrena, Abuztuaren 24-an, Villar de los Nava-ros deritzayon errian (Zaragoza) izandu zan, ontan karlistak irabazirik, liberalak Buerens jenerala bu-ru zutela.

Andik abiatuta, pausorik utsegin gabe, Agorraren 12-an, karlistak Madriko ateetaraño, Vallecas-eraño, iritxi ziran.

Batalloyak Madrid asaltatzea nai zuten, bañan, ori egin bearrean, erretiratzeko agindua izan zuten, Ma-

drid aurrean geldirik egonda gero. Eraso izan bahote, Madrid berea zutela diote liburu askok. Andik Euskalerrira itzuli ziran, ziur asko gerra irabazteko aukerarik ederrena eskutik galduta.

Dana dala, oso nabarmen dago bertso auek karlisten joan-etorri oyen denboran egiñak daudela, liberalak estuasunik gorrienean ikaraz aidean zedularik.

Bolara artan iñoiz baño aundiagoak esan zizkaten liberalak karlistai: "hordas de asesinos" eta ortik aurrerakoak. Alakoekin beterik daude orduko liberal-paperak.

Ez da, beraz, arritzekoa, Echegaray-k ere beste itz-jariorik ez badu.

**KARLOS BOSTGARREN ERREGE DEI-
TZEN DANARI EUSKALDUNAK
ZORTZIKOA**

1/ Basoko erregea,
Karlos bizar gorri,
Majestade aundia,
gaur agur zerorri:
Isabelen tronuan
nai badezu jarri,
Madrilla joan oi zera
ametsetan sarri.

2/ Karlos odolgiroa,
zital arritua,
zori ordu gaitzean
mundura sortua:
errege txantxetako
madarikatua,
gizatxar mendekari
dollor kaltetsua.

3/ Karlosek lege bage
nai luke agindu,
gogoak dionari
bizia ekendu:

zar eta gaztearen
egunak azkendu,
Ezpañiako lurra
ezurrez apaindu.

4/ Illobaren koroa
ezin atziturik,
osaba Karlos dabil
burua galdurik:
txoratu beingoan
ez dauka zentzurik,
ez arrazoi, ez lege,
ez ezaguerarik.

5/ Ezkurrean ametsa
du txerri goseak,
eta beti Madrillen
Karlos erregeak:
arbolari begira
dio azeriak:
eldu bageak daude,
oraindik berdeak.

6/ Emen eror, an altxa,
bera eta gora,
eskintxoka dijoa
Karlosen denbora:
Jaca-tik Huesca-ra,
andik Barbastro-ra,
gero etorri zaigu
txoria eskura.

7/ Madrilla bearrean
galdurik bidea
Cataluña-ra joan da
sasi-erregea:
bakan etorri oi da
bakarra kaltea,
bidea galdu eta
ondoren jendea.

8/ Apaiz ernegatua
jeneral Cabrera,
zegoan irtentzeko
Karlosen bidera:
bata eta bestea
itzuli joan dira,
zergatik Baron de Mer
sartu dan erdira.

9/ Aita San Antonio
bezpera eguna,
illaren amabia
etzuben txit ona:
korde bage zegoan
Karlos alarguna
galdurikan ugari,
gizonan, gizona.

10/ Karlos ikaturik
egon da begira,
nola bere jendea
dijoan mendira:
amorratu zorian
igeska asi da,
ortzak estutu eta
illeari tira.

11/ Karlosen konsejari
jakintsun bakarra,
Abarca Obispoa,
jeneral azkarra:
Eleizaren abea,
fedeko indarra,
bedeikazioakin
egiten du gerra.

12/ Karlos iltzen daneko
gordetzen fedea,
aurreratua dago
bere aldarea:
Abarca-k garbitua
zeruko bidea,
Requiescant in pace
apaiz erregea.

IKUSI: Moldiztegiaren izenik gabeko kanta-pa-
pera. (New Library, Chicago.)

**TXAPELTXURI EUSKALDUN
ERNEGATU BATEN
Ai, ai, ai KANTAK**

1/ Amabi bertso berri
ona, euskaldunak,
aditu nere miñak,
gaitz eritasunak:
ai, ai, ai ikasi
nola naizen bizi.

2/ Karlos jaunaren alde
artu nuben arma,
negarretan utzirik
aita eta ama:
ai, ai, ai gaixoak
nere gurasoak.

3/ Laster berritu ziran
etxeko malkoak
aditu utsarekin
jende fedekoak:
ai, ai, ai zitalak
eta gizatxarrak.

4/ Fedea da beltzaren
odol egarria,
ondamen, suba, garra
ta lapurreria:
ai, ai, ai likitsak
leoy katamotzak.

5/ Esku batean dute
Kristo gurutzean,
odola dariola
ezpata bestean:
ai, ai, ai biyetan
beti odoletan.

6/ Txuri ta beltzik bage
leneko legean
guztiok bizi giñan
gloriyan pakean:
ai, ai, ai ez ala
gaurko egunean.

7/ Ez dakit zertarako
gabiltzan onela
españolak itxurtzen
elkarren odola:
ai, ai, ai zer pena
eta itxumena!

- 8/ Zer egiteko degu
Karlosen gauzetan,
soldadu ibiltzeko
bere banderetan:
ai, ai, ai, neketan
gau ta egunetan.
- 9/ Aberatsaren kontra
pobrearen gerra
denbora guztietan
izan da okerra:
ai, ai, ai zer txarra
dan damu-negarra!
- 10/ Erregek diru gutxi,
jendea ez asko,
guztia eskas dauka
gerra egiteko:
ai, ai, ai gazteak,
egin dik gureak.
- 11/ Karlosek, egin arren
bere alegiña,
ezin garai lezake
inon erregiña:
ai, ai, ai txuriak
zer barrenge miña!

12/ Akabatzera noa,
agindu det eta,
orain amabirekin
gaurko bertsoketa:
ai, ai, ai barkatu
nere jarduketa

IKUSI: Moldiztegiaren izenik gabeko kanta-pa-
pera. (New Library, Chicago.)

(1841)

“El lunes de Carnaval de 1841 se verificó la tercera *Comparsa de jardineros*, para la cual escribió el Sr. Echegaray el *Zortziko*, que fué puesto en música por el respetable comerciante y distinguido filarmónico nuestro convecino D. José Manuel de Brunet.

Este zortziko, al que se ha puesto recientemente nueva música, es el que comienza con la estrofa:

Nekazariak maite — degu zortzikoa,
dantza beste lekutan — ez dan modukoa:
kanta biotz pozgarri — Euskal-errikoa,
plaza soñu egoki — denboretakoa.” (1)

(1) José Manterola: **Breve noticia** de algunas Comparsas y fiestas de Carnaval... (“Euskal-Erria”, VIII, 1883).

COMPARSA DE JARDINEROS
EN LA CIUDAD DE SAN SEBASTIAN
EL CARNAVAL DE 1841

HIMNO DE LA MARCHA

Virgen Flora, delicia del cielo,
dulce encanto del alma Natura,
cuya espléndida aureola fulgura
más que el sol del Oriente al zenit.

Acoged, o deidad peregrina,
de Urumea la fácil corona
que en tus aras de fuego abandona
de tus Ninfas el coro gentil.

Ya la pira en tu altar elevando
vaga nube de aromas al viento,
a ti lleva sonoro el acento
con que el valle saluda al Abril.

Vibra, pues, de Urumea en las aguas
esa luz creadora en que brillas,
y embellece sus blandas orillas
con las flores del Turia y Genil.

Sin tu alfombra de sándalo y rosas,
¿quién al mundo prestara consuelo?
¿quién al prado, a la selva y al cielo
su frescura, fragancia y matiz?

Por ti suena del claro arroyuelo
y del ave la fiel melodía:
por ti el encanto de amable poesía,
por ti sola el mortal es feliz.

CANCION EN EL JARDIN

Coro

Mil himnos cantemos
al Numen creador
que vierte en los campos
la Paz y el Amor.

El dueño:

Seguid, caros hijos
de Flora y Cibeles;
poblad mis verjeles
de mirto y azahar.

Seguid, que las flores,
marchitas del hielo,
consigue el anhelo
más bellas alzar.

Coro

Los jardineros:

Venid, jardineras,
que al veros la rosa
recela envidiosa
brotar del capuz.

Nos veis, embebidos
en vuestros amores,
dejar las labores
y herir el laúd.

Coro

Las jardineras:

Mancebos, de quienes
el nombre se escucha
tan bravo en la lucha
cuan tierno al pensil:
del ámbito ibero
la faz de esmeraldas
os brinda guirnaldas
de lauro y jazmín.

Coro

ZORTZIKOA

- 1/ Nekazariak maite
degu zortzikoa,
dantza, beste lekutan
ez dan modukoa,
kanta biotz pozgarri
Euskal errikoa,
plaza-soñu egoki
denboretakoa.

- 2/ Belar edo lorea,
usai gozo fiña,
ispligu, albaraka,
arros, klabeliña,
bioleta, liriyo,
aleli, jazmiña,
dauzka gure baratzak
eziñ esan diña.

3/ Emakumeak datoz
baratzgilleakin,
apainduak soñeko
polit berriakin,
plazara dantzatzera
soñu ederrakin,
eta gero etxera
nor berearekin.

4/ Jateko alkatxofak,
laranjak, limoñak,
melokotoi, aranak,
gingak, gereziyak,
illar, baba, baberrun,
matsa, marrubiyak,
esparragoa, azak,
letxuga, meloyak.

5/ Uda berriko dago
baratza gurea,
belar onak ugari,
oparo lorea,
usaya txit gozoa,
eder kolorea,
indarrean sustraya,
berde landarea.

6/ Lore, berdura, fruta
esan ez dan asko,
gure baratzen laster
dira agertuko,
beren sasoy denboran
diranak elduko,
eta oraiñ adiyó
emendik orduko.

IKUSI: **Kanta-papera:** "Imprenta de I. R. Baroja". (José Manterola zanaren bertso-bilduma, Donostian.)

Eskuz idatzita auxe du: (**Autor del Zortzico: D. José Vicente de Echagaray.**)

"**Euskal-Erria**", 16, 1887, 153 orri-alde. Onek izena onela du: "Zortzico para la Comparsa de Jardineros, el lunes de Carnaval de 1841, con marcha y canción en el jardín". Ta beste ordenontan dakarzki bertsoak: 1, 3, 5, 2, 4, 6. Eta erderazko bertsorik ez dakar. 4/7-8: esparragoak azak — letxugak, meloyak.

"**Euskal-Erria**", 28, 1893, 96 orri-alde. Onek **Euskal-Erria** bezela dauka dana, auek izan ezik: 2/5: bioleta, lilia; 4/6: eta marrubiyak.

(1843)

“El 19 de Febrero de 1843 hubo una nueva *Estudiantina*, para la que compuso el indispensable Sr. Echegaray la letra de una *Jota* coreada, un *Recitado* y *Bolero*; el lunes de Carnaval del mismo año (*asteleniote eguerdian*) la tercera *Comparsa de Oficios* (*Langille maisuen festa*); y el martes otra de *Gitanos andaluces*.

En la fiesta del lunes se cantaron por vez primera los zortzikos de Echegaray: *Festarik bear bada...* etc., compuestos en 1832, y de que hemos hecho mención anteriormente.” (1)

(1) José Manterola: **Breve noticia de algunas Comparsas y fiestas de Carnaval...** (“Euskal-Erria”, VIII, 1883).

COMPARSA DE ESTUDIANTES
EL CARNAVAL DEL AÑO DE 1843

JOTA

En tiempo de vacaciones
la juventud escolar
no cuida de repasar
del *dómine* las lecciones.

Prefiere correr la tuna,
sin pecunia ni embarazo,
libremente a campo raso,
en tinieblas, sol y luna.

Fidelis con esperanza
sufre fríos y calores,
trabajos mil, sinsabores,
soñando en la pitanza.

A todo manjar que alcanza
con la vista o el olfato,
sin necesidad de plato
su cucharita se lanza.

Más feliz en otros tiempos,
cuando había refectorios,
de la sopa y accesorios
le surtían los conventos.

Faltan aquellos fragmentos
con la falta de los frailes,
de chanfaina y otros tales
sustanciosos alimentos.

Existen algunas monjas,
que a pesar de los trastornos,
nos abren sus tristes tornos
con mendrugos sin lisonjas.

Discurriendo con templanza
el bandullo siempre espera,
la panza no desespera,
y continúa la holganza.

Con esperanza tan firme
se toca la retirada,
es más suave la jornada,
y daré antes de irme,

al afable vecindario
gracias, veces infinitas,
y a las lindas señoritas
del guipuzcoano emporio.

CORO

*Sigamos la broma
y vamos pidiendo,
cantemos diciendo:
Viva de bayeta
la ropa talar,
manteo y sotana,
cómoda alpargata
y la chirigaita.*

RECITADO

El *dómine* don Esurio,
traslado fiel de un osario,
abate sexagenario,
homo maximus, gran ingenio,
va echando florecitas
a las *nescachas politas*.

Ser amable, sexo hermoso,
hechizo maravilloso,
eres imán poderoso,
atractivo prodigioso.

Embeleso de estudiantes,
del *dómine* y sus pasantes,
que dicen ahora y antes.

De prendas tan relevantes

San Sebastián es la cuna,
y en ocasión oportuna
repiten todos a una
cuantos van corriendo tuna.

BOLERO

Bolerita mi nave
se denomina,
es de primera marcha,
veloz camina:
vela latina,
tripulada de gente
estudiantina.

Navega el Estudiante
con viento en popa,
antes que la maniobra
cuida la sopa:
se vuelve sordo
a la voz del piloto:
vira de bordo.

Dando la popa al viento
no se marea,
y aquel que no es torero
nunca capea:
con el capeo
se prolonga el viaje
y me mareo.

El timonel experto
da una orzada,
y dice al estudiante:
habrá posada;
en el momento
se ve el puerto deseado
de salvamento.

La cuchara de palo
es mi divisa,
que a la nave enemiga
aborda a prisa:
si halla comida,
riesgos, borrascas, penas,
todo lo olvida.

De palo la cuchara
es diestro remo
que al puerto de mi boca
sigue su rumbo:
bucea tanto
que zambullendo saca
peces del plato.

IKUSI: **Kanta-papera:** "IMPRESA de PIO BARROJA, Plaza nueva, n.º 10." (Bibliothèque Nationale, Paris.)

Eskuz erantsita, paperak au dauka:

Manterola 1878, 8re 16

Esta Jota y Bolero fueron compuestos por D José Vicente de Echagaray (Au, Manterola-ren eskuz idatzita dago.)

(1843)

**DONOSTIAKO GAZTEAK
LANGILLE MAISUEN FESTA
1843-GARREN URTEKO ASTELENIOTE
EGUERDIAN**

IBIL BERDIÑA

- 1/ Inauterian oitu bezela
Donostiako gazteak
martxa kantari batzuek eta
soñuarekin besteak:
datoz plazako dantza-lekura
gaur esker onez beteak,
bakoitza here bear-gayakin
erakustera nekeak.

- 2/ Zortzi langille maisu jakintsun,
andreak aldamenean,
garbi egoki apaindurikan
jatzai onenak soñean:
pozez kantari gogoarekiz
daude nor here lanean,
eta sarritan dantza oi dira
bearrik ez dutenean.

BELAUN TXINGOA

Nere langille maiteak, zar eta gazteak,
aditu nekeak,
pena naibageak,
igaro ditugunak, gizon zital dollorak
aisa sinisturik,
gaude damaturik:
ontzietan joan giñan Montevideora,
galtzera denbora,
alperkeriara:
goseak erdi illak, ez ezeren jabe,
lan ta diru bage
an egon gerade.

PISPILIN

1/ Dendari eta Zapataria
berak nor baldin badira,
egitekoa badute eta
txit ongi biziko dira:
pispilin, pozpolin, plazara danbolin,
goseak ilko ez dira.

2/ Arotzak eta Pitxargilleak
oi dute lana ugari,
bearra gogoz egiñarekin
kobru ematen lanari:
pispilin, pozpolin, plazara danbolin,
izan ditezke txit ongi.

3/ Kupelagille, Perratzalleak
bearra urri bakana,
biak gogoa on dute baña,
nai duten diña ez lana:
pispilin, pozipolin, plazara danbolin,
beti eskasa jornala.

4/ Pazingille ta Txorrotzallea
lana egiten oituak,
atzerrikoak izanakatik
bearrerako zintzuak:
pispilin, pozipolin, plazara danbolin,
biak gizontxo prestuak.

ARDO TXURRUT

Senarrak:

Beti beargiñean
neke azpian,
bururik jaso gabe
nere bizian;
Iñauterian
atxeren-alditxo bat
det Donostian,
eguntxo bian
goiz arratsalde eta
eguerdian,
plaza berrian,
egunaz eta gabaz
ordu guztian.

Emazteak:

Ezkondu nintzan eta
ez det damurik,
ezin artuko nuen
senar oberik,
leyalagorik,
berarekin bizi naiz
pozez beterik,
penak azturik,
ez du nere gizonak
bere parerik,
beargillerik,
iñork ikusi ez du
bentxo geldirik.

BAI, BAI, BAI

1/ Nagusi, etxeoandre
eta mirabeak
plazan daude, itxirik
etxeo ateak;
bai, bai, bai, festetan
zar eta gazteak.

2/ Egunero badatoz
jende kanpokoak
ikustera eralde (a)
plaza berrikoak;
bai, bai bai, festatxo
Iñauterikoak.

(a) Eralde **Comparsa** (Egillearen oarra).

ZORTZIKOA

1/ Festarik bear bada
bego Donostia,
betikoa du fama
ondo merezia:
bestetan ez bezela
emen gazteria
amaren sabeletik
dator ikasia.

2/ Donostiarrak dute
aukera, doaia,
urtero asmatzeko
festa bat berria:
beren modutxoa da
gutziz egokia,
zer-nai gauzetarako
arkitzen du gaia.

3/ Aurten iñaute festak
eder eta luze,
Otsailla beingoan
oso bete dute:
iñoiz ez det ikusi
iñon onenbeste,
eta gerora ere
ez ikusi uste.

4/ San Bizente goizean
bostak jo etzuten,
atabal danboliñak
nenguen entzuten:
ordu bian argirik
ez nuen ikusten,
logale nintzan baña
etziraden uzten.

5/ Ill onen asieran
lenengo jayean,
egun sentiarekin
nentzala oyea,
iñudeak aurrakin
zebiltzan kalean,
ta gotxo-saltzallea
berakin batean.

6/ Beste zenbait badira
arrezkerokoak,
festa eder egoki
Donostiakoak:
gero estudiante
eta ijitoak,
zortzi maisu langille
gerade gaurkoak.

ta de Ignacio Ramón Baroja". (José Manterola-ren bertso-bilduma, Donosti.)

Onek, Manterola-ren eskuz idatzita auxe du: **(Autor: Dn. José Vicente de Echegaray.)**

Bertso-paper au ertzetatik jira guztian ebakita dago ta etzayo moldiztegiaren izenik arkitzen. Bañan Bonaparte-ren bilduman (The New Library, Chicago) osorik dago, ta moldiztegiaren izena oso garbi dauka.

"**Euskal-Erria**", XXXII, 1895, 148 orri-alde. Onek **Ardo Txurrut** eta **Zortzikoa** falta ditu. Ta aldaketa au du: **Pispilin** 2/3: gogor.

* * *

Manterola-k ("**Breve noticia** de algunas Comparsas y fiestas de Carnaval...", "Euskal-Erria, VIII, 1883 106 orri-alde) onela dio:

"...1859, en cuyo martes de Carnaval se celebró por quinta vez la **Comparsa de oficios o de artesanos**.

El famoso Echegaray había muerto ya, desgraciadamente sin dejar sucesor que le reemplazara, y así es que para esta Comparsa hubo que echar mano de la **Marcha, Belaun-txingoa, Pispilin, Bai-bai-bai, Ardo-txurrut**, y el **Zortziko**, escritos por aquél para la del año 1843, que se reimprimieron al pie de la letra.

Bigarren argitaraldi ontakoak dira:

Kanta-papera: "San Sebastián: imprenta tipoligráfica de Pío Baroja. — 1859" (Bibliothèque Nationale, Paris). Kanta-paper onek eskuz idatzita oar auek ditu: "**1843**" (Manterola-ren letraz) "**(Manterola, 1878 8ra 16)**" (Beste letraz) "**(Compuestos por D. José Vicente de Echegaray)**" (Manterola-ren letraz au ere). Kanta-paper onek asiera ola du: **DONOSTIAKO GAZTEAK LANGILLE MAISUEN FESTA 1859-garren urteko Zanpanzart eguerdian.**

Eskuz idatzitakoa, Manterola-ren bertso-bilduman, Donosti.

"**Euskal-Erria**"-k (44, 1901, 102 orri-alde) argitaratu zituan urte ontako **Ardo Txurrut** eta **Zortzikoa**. Izena ola jarri zion: "**Senar-emazte Donostiarak lengo inauteriyetan**". Ta aldaketa auek sartu zituan: Senarraren bertsoaren asieran: **Beti be-
ar nuen nik; Emaztearenean: eziñ autuko nuen;**
Zortzikoa: 3/1: **Beti inaute festa;** 4/1: **Inauteri
goizean;** 4/7: **nintzala;** 5/7: **ta goxo saltzalleak;**
6/5: **gero ixturiyante;** 6/7-8: **zortzi langille maisu
— ta gañerakuck.**

LOS GITANOS ANDALUCES
EN SAN SEBASTIAN, EN EL CARNAVAL
DE 1843

INTRODUCCION

1/ Viva la gente gitana,
viva zu garbo y zu zal,
naide espresie su calaña,
que es de mucha caliá.

¡Pué no ez ná!

¡Al avío! camaráas,

¡Arsa y ole! a trazquilá,
y al compaz

entonemo

un cantá.

2/ El Gitano va onde quiera
jasia el campo o la siudá,
y hazta los montes shumiyán
para dejale pasá.

¡Pué no ez ná!

¡Al avío! camaráas, etc.

3/ Si alguna jembra arrepara
en zu onaire selestial,
isacabó! que al estantico
traz él la vizta se le vá.

¡Pué no ez ná!

¡Al avío! camaráas, etc.

4/ Y en jisiendo iole con ole!
un Gitano si se enfaa,
¡Jezucristo! el mundo entero
de mieo ze pone a temblá.

¡Pué no ez ná!

¡Al avío! camaráas, etc.

TIRANA

¡Juy! Zalero e mis jentrañas,
sandunguera zin igual,
esde hoy tu chairo he de zer,
y tú mi chula zerás.

Cuando a mí guelves los ojaz
con eza dulce miráa,
¡ay, Jesús! ¡qué tentasión!
yo mesmayo y no pueo más.

Por verte tan jechisera,
tan gayarda y rezaláa,
los Zerafines del sielo
a la tierra quieren bajá.

Que no hay rosa o claveyina
tan frezca y tan coloráa,
como eze palmito e cara
y eza boquiya e coral.

¡Pué y aqueya pantorriya!
y aquel... ¡juy! ino he icho ná!
Bendito zea el jolivo
que tales jolivas da.

Joye, reina e las jermosas,
si tú me yegas a amar,
¡por vía! no habrá denguna
con más rumbo en la siudá.

Que aunque so probe y gitano,
tengo jumo y calía,
y má fachenda y má jole
que el mesmísimo zultán.

Y jentose mi jaquiya,
que es senteya pa volar,
tú en las ancas, yo en la siya,
a escape nos yevará.

Yo iré jisiendo a too el mundo
y a la corte selestial:
“¡Paso a la reina e las majas!
“¡Esta e mi chula! ¡jatrás!”

Y zi algún esgalichao
tu lus satreve a mirá,
¡Voto a bríos!, de un resoplío
le lanso a la eterniá.

Que so yo mu duro e genio,
y en yegándome a amozcar,
so jombre pa regolver
la tierra, el sielo y la mar.

Amaina pues, cuelpo ivino,
no te jagas de rogá,
y jalivia a este esdichao
por la Santa Treniá.

ESTRIBILLO

*Ajuera el zuelo andaluz,
Ajuera Ronda y Zeviya,
ezto e jecho! yo me muo
a la tierra e Donoztiya, (1)
que hay aquí erramando amores
un lusero, una curriya,
con toa la zal de Jezús,
que el corasón macribiya.*

(1) Llámase así en vascuence a la Ciudad de San Sebastián. (Kanta-paperak daukan oarra.)

BOLERO

1/ A tu reja la noche
paso cantando,
tú eztás mu sosegáa
y yo penando.
¡Zal! prenda mía,
que zi azoma tu lumbre
la noche ez día.

2/ Ni el zol po la mañana
briya en los sielos,
ni el lusero en la noche
zin tuz ojuelos.
Que yo en sus senteyas
tengo yo, cara e rosa,
mi zol y estreyas.

3/ Si no te compaeses
de mis clamores,
¡Curriya! yo me muero
de mal damores;
y e crua zuerte
que en ves de darme vía
me des la muerte.

4/ ¿Pa qué tiene la flor
tan dulce briyo,
si naide ha de gosar
su jolorsiyo?

¡Mira, zaláa!
que el tesoro escondío
no sierve e náa.

5/ No te jaga tan fiera
tu rostro ivino,
que al fin toito ze va
como ze vino.

¡Jay! arrepara
antes que la esperiensa
te cueste cara.

6/ Si hoy espresias a tóos
tan presumía,
¡cuidiao! quisá mañana
zerá otro día.

Y tal puiera
que cuando tú a tos quieras
naide te quiera.

IKUSI: **Kanta-papera**: "En la Imprenta de Ignacio Ramón Baroja". (Bibliothèque Nationale, Paris.)

(1844)

DONOSTIAKO GAZTETXOAK
IRU ERREGE BEZPERA GABEAN
1844-GARREN URTEAN

MARTXA

*Marchan los reyes, llevan por guía
izar berri bat argia,
astro brillante y prodigioso
zeruetatik jatxia;
El los dirige, ellos le siguen,
jakintsua da laguna,
camino recto sin extravió
zuzen dijoaz Belena.*

PASTORELA

1/ Celebrado el origen
de nuestra redención,
obra incomprensible
de gran veneración,
sigue otra divina
que causa admiración:
de los tres Reyes Magos
la santa adoración.

2/ Caminando Melchor,
Gaspar y Baltasar,
un astro luminoso
llegan a alcanzar,
que desciende del Cielo
y les viene a guiar,
marchando por delante
al sagrado lugar.

3/ Llegan llenos de gozo
al dichoso portal,
oro, incienso y mirra
llevan para ofrendar;
postrados a los pies
del niño celestial,
humildes y contritos
se ponen a adorar.

4/ De Madre Virgen pura
al fruto sin mancha,
los Angeles, los Reyes,
le doblan la rodilla;
al divino Mesías
que al nacer tanto brilla,
al criador de todo,
todo se le humilla.

CORO

*Hoy vispera de Reyes
con nuestra Orquesta
cantamos pedigüeños
de puerta en puerta;
aguinaldos buscamos
que es cuenta nuestra,
el darlos o negarlos
la cuenta es vuestra.*

ZORTZIKOA

- 1/ Jesusaren jayotza
Onentzarokoa
urtero berritza
ez da oraingoa;
Erregien bezpera
da ondorengoa,
kristabaren oroitze
denboretakoa.

- 2/ Meltxor, Gaspar, Baltasar,
iru Erregeak,
Orienteko jaunak,
naikeraz beteak,
aisa utzi dituzte
beren aginteak,
eta erraz ikasi
Belengo bideak.

3/ Izar berri eder bat
jatxi da Zerutik,
Errege jaun oberi
laguntzeagatik;
gidatzalle argia
dijoa aurretik
Belengo portalera
bide zuzenetik.

4/ Izarraren argia
estali danean,
Erregiak arkitu
dira Portalean;
ipiñirik bertatik
belaunak lurrean,
irurak umill daude
Jesusen aurrean.

5/ Frutu bedeinkatua
Birjiña Amarena,
jayotzetik ainbeste
agintze duena;
Aingeru, Erregiak
dirade aurrena,
ipintzen diotena
lurrean belauna.

EUSKARITXOA

Gaur Errege bezperan
aterikan ate
gure eskarioa
aditu bezate:
agirandotxo zerbait
eman nai badute,
beren etxe koetan
egin bage kalte.

IKUSI: **Kanta-papera:** "SAN SEBASTIAN: imprenta de **Pío Baroja**, plaza nueva n. 10." Paperak eskuz idatzita auxe du: **Autor: D. José Vicente de Echegaray.** (José Manterola zanaren bertso-bilduma, Donostia-n.)

Kanta auek bigarren argitaraldia ere izan zuten. Kanta-papera Chicago-n (New Library) dago.

Paper onek urtea aldatzen du (**1855 garren urtean**), lenengo bertsoa, **MARTXA** deritzana, falta du, ta moldiztegiaren izena onela dakar: **SAN SEBASTIAN: Imprenta de Pío Baroja.**

Gañerakoan berdiñ-berdiñak dira bi paperak.

(1845)

**DONOSTIARRAK 1845-EKO
IÑAUTERIYETAN**

1/ **Beti Donostiako
damatxo, galayak,
gizon eta andreak,
dibertitu nayak:
soñuak eta kantak
dira onen gayak,
ala erakusten du
gure gaurko deyak.**

2/ **Adiskide arrotzak
ditugu lagunak,
ageri dan bezela,
aditzalle onak:
gugana etorriak,
galai ta gizonak,
zuentzat on eskerrez
beteak diranak.**

3/ Alde bat utzirikan
samiñ naigabeak,
elgarganatzen dira
zar eta gazteak:
udan eta neguan
arturik nekeak,
soñu eta kantakin
naikeraz beteak.

4/ Gure biotzak daude
pozak zabaldurik,
atsegiñ emateko
eskerrez beterik:
borondate gureak
ez dauka oberik,
neke gai aiñ artuaz
ez degu damurik.

5/ Aurten Otsagillaren
seigarren gabean
elkarganatu gera
Donosti maitean;
soñu eta kantakiñ
umore onean,
atsegiñ ona nairik
alegiñ gurean.

6/ Erritar maite eta
arrotz errikoak,
ona gure aitormen
txit egiazkoak:
oroipen biotzeko
Donostiakoak,
len, oraiñ eta beti
obe bagekoak.

IKUSI: "Euskal-Erria", 44, 1901, 96 orri-alde.

(Bertso aietaz ez du Manterola-k ezer esaten.
Etzituan ezagutuko, beraz.)

COMPARSA DE VALENCIANOS
EN SAN SEBASTIAN
EL LUNES DE CARNAVAL
DEL AÑO DE 1845

TIRANA

Ya otra vez deja, tirana,
el valenciano su tierra,
otra vez vuelve, inhumana,
a declararte la guerra.

Guerra sí, mas no te asustes,
no pido sangre y horror,
que mis guerras, tiranilla,
son siempre guerras de amor.

Arcos son tus bellos ojos,
tus miradas flechas son,
sea el blanco de tus tiros
mi amoroso corazón.

Y verásme cuán rendido
pido a tus plantas favor,
que en estas lides, tirana,
quien se humilla es vencedor.

Eres bella entre las bellas,
de belleza celestial,
eres ángel, eres diosa,
eres mi perla oriental.

¿Ves qué blanca y qué salada
es la espuma de la mar?
Pues más blanco es aún tu cuello,
más salado es aún tu hablar.

Mas no imites a los mares,
niña, en su inconstante afán,
no seas como las olas
que en cuanto vienen se van.

Fija en mí tu amor constante,
ten, por Dios, de mí piedad,
que aliviar a un afligido
es obra de caridad.

Mira, hermosa, te prometo,
si te llegas a amansar,
por un sí de esa boquita
dejar mi campo y hogar;

que no tengo, retrechera,
en mi fértil heredad,
árbol, planta, flor ni fruta,
que prefiera a tu beldad.

Y no digas "aún soy joven,
tiempo tengo para amar",
que la flor de la hermosura
ay! se suele marchitar.

Ama, pues, áname pronto,
cese ya tu indiferencia,
ay! monona, no me dejes
a la luna de Valencia.

ESTRIBILLO

*Hermosa enemiga
de mi corazón,
que ves y no premias
mi tierna pasión;
ay! deja, te pido,
tan fiero rigor,
que es flor sin aroma
niña sin amor.*

BOLERAS

Si tú supieras, niña,
lo que es amor,
a fe que no mostraras
tanto rigor.
Que amor es fruta
que en probando una vez
a todos gusta

Dícesme que nos causa
mil sinsabores,
mas también nos prodiga
dulces favores.
Y si examinas,
nadie deja la rosa
por las espinas.

Si burlas hoy de amor,
bella inhumana,
tal vez se burle amor
de ti mañana;
mira, no fíes,
no sea que al fin llores
si ahora ríes.

Es amor tan tirano
en cuanto ordena,
que a quien más se resiste
más encadena.
Y es más prudente
quien antes a su yugo
dobla la frente.

Cede ya y compadece
mi triste suerte,
sin ti, prenda adorada,
la vida es muerte:
por Dios siquiera,
di una vez que me quieras
y luego muera.

Mas no, hermosa, no pienses
que he de matarme,
por mucho que te empeñes
en desdeñarme;
que al fin, querida,
las tiranas son muchas
y una al vida.

IKUSI: **Kanta-paperak:** "Imprenta de Ignacio Ramón Baroja". (Bibliothèque Nationale, Paris.)

(1845)

1845-ngo Abuztuaren 23-an, Donostira etorri ziran Isabel II erregina, bere ama Maria Cristina, ta bere aizpa Luiza Fernanda. Donostiak arrera ederra egin zien. *Txakur-Txulo* zeritzayon ostatuan jarri ziran. Ostatu ori Boulevard eta kale nagusiko kantoyean omen zegoan. Musika-jaialdi bat eman zuan erriak, Luisa Fernanda-ren onran, danetan azkena zortziko bat kantatuaz. Zortzikoaren itzak, Etxegaray jaunak asmatuak ziran noski.

(1845)

JAYO ZIÑAN ORDUTIK

1/ Jayo ziñan ordutik,
Luisa Fernanda,
amairu urte t'erdi
orain arte joan da:
eta gaur Donostia
lengua bera da,
ziñez biotz osotik
beti zurea da.

2/ Infanta gaztetxea
Españiako,
Isabelen aizpatxo
biotz gurekoa:
erregeren alaba
zorionekoa,
ar ezazu oroitze
Donostiakoa.

3/ *Salve, Luisa, salve,*
infanta maitea,
erregiñaren aizpa
bakartxo gaztea:
lore gain gañekoa
berdiñik gabea,
aingeru ezti eder
naikeraz betea.

IKUSI: "Euskal-Erria", 53, 1905, 165 orri-alde.
(Nai duanak or arkituko du argibide geyago.)

(1845)

ZORTZIKOA
AGORRILLAREN AMARREKO
GABOTSANDEAN
ERREGIÑARI
BERE AMA ANDRE ETA AIZPATXOARI
KANTATUA

1/ Isabel bigarrena,
aingeru maitea,
Erregiña gurea,
berdiñik gabea:
euskaldunaren doai,
atsegiñ betea,
eta Donostiaren
zorion jabea.

2/ Guztiz pozgarria da
Agor illa aurten,
bere asieratik
digu erakusten:
amar egunez gaude
Isabel ikusten,
eta gure begiak
ez dira aspertzen.

- 6/ Jargoitu izan diran
Errege guztiak,
argitara dituzte
aitormen egiak:
Donostiaren onkai
otsare aundiak,
eta isildu ere
beraren etsayak.
- 7/ Serbikintzak millazka
Donostiakoak
dira guztiz argiak
antziñetakoak:
ala itxasozkoak
non legorrezkoak,
len, oraiñ eta beti
borondatezkoak.
- 8/ Damurik ez deguna
ondo da ageri,
biotzak eman nairik
gaur Erregiñari:
gure barrena argi
ager al baledi,
ez genuke bekaitzik
izango iñori.

KANTARIDIA

*Erregiña maitea,
bigarren Isabel,
salbe Donostiarrak,
salbe milla bider:
salbe zuri, Kristina,
bere ama andrea,
eta salbe, Luisa,
aizpatxo gaztea.*

IKUSI: Kanta-papera: "DONOSTIAN, Ignacio Ramon Baroja-ren moldiztegia. (Bonaparte-ren bertso-bilduma, The New Library, Chicago.)

Kanta-paper ontan ez da esaten egillea nor dan; bañan joskera eta itxura guzia Echagaray-rena dan ezkerro, liburu ontan sartu degu.

(1845)

**GURUTZE SANTU LEZOKOAREN
BEDERATZIURRENEKO GOZOA (1)**

1/ Erromerian dator jendea
Lezoko Kristorengana,
zeren munduak ondo dakien
txit miragarria dana:
dijoazenak ta datozenak
Lezon daukate meaztarra,
biotz barrendik egiñarekin
beren damuaz negarra.

2/ Euskal-erriko guztiak eta
millaka erbestekoak
dira Lezoko Santo Kristoren
egiazko debotoak:
lasterka datoz ager egiten
pekatu antziñakoak,
damuarekin Gurutzeari
galdezka barkazioak.

3/ Mutuak, gorrak, itxu ta errenak
Lezoko eleiza onetan
ikusi dira, ez bein bakarrik,
baña bai asko alditan:
itza egiten, ondo entzuten,
argitzen, ibill lasterkan,
fedearekin erreguturik
Santo Kristoren oñetan.

4/ Ez da eririk, ez da gaxorik,
dolore ta samiñikan,
Lezoko Kristo miragarriak
sendatuko ez duenikan:
denborarekin batzuek eta
beste asko bertatikan,
fedearekin biotz barrendik
umill erreguturikan.

5/ Itxasoetan erdi itoak
egon diraden jendeak,
salbatu ditu milla ta milla
Gurutze Santu gureak:
promesa egin ta ekarri ditu
esker on eta fedeak,
negar-malkoa dariotela
ala zar nola gazteak.

- 6/ Katibuturik egon diranak
kate burnizkoz lotuak,
legen zauriaz denbora luzez
urrikari bizituak,
Lezon arkitu izan dituzte
erremedio zerukoak;
au ta geiago egiten daki
Gurutz Santu bertakoak.
- 7/ Kristaurikan dan gaiztoenak,
biotzik dan gogorrenak,
zeruko bide berdiñ ederra
Lezon daukate dianak:
beterik amar mandamentuak
Kristori dagozkionak,
bere grazia santua laster
betiko dauka gizonak.
- 8/ Gurutze Santu miragarriak
mundu guztian du fama,
zeren beraren amorioak
gordetzen duen anima:
bitartekotzat ipiñirikan
Maria Birjiña Ama,
urrikiaren galdezka gaude,
gure jabe eta Jauna.

KOROA

Lezora guazen fedearekin,
an dago Zeruko Jauna,
gurutze baten iltzez josia,
besoak zabal gugana.

(1) "Euskal-Erria"-k (56, 1907, 367 orri-alde) izen-burua onela du: **HIMNO AL SANTO CRISTO DE LEZO** escrito por los años de 1845 por el poeta donostiarra José Vicente de Echagaray, y cantado por los romeros de aquella época.

IKUSI: "Euskal-Erria", 17, 1887, 230 orri-alde.
"Euskal-Erria", 56, 1907, 367 orri-alde.

(1846)

**DONOSTIAKO GAZTEAK
MAISU LANGILLE FESTA,
ZANPANZART IÑAUTE EGUARDIAN
1846-GARREN URTEAN**

MARTXA

- 1/ Zanpanzart jauna iñaute azken
egun berdiñik gabea,
goizetik arrats aspertzen ez da
jan eranean jendea:
gaur langilleak, ase ta bete,
txit urri degu nekea,
eta andreak ardatza nagi,
beren linaya betea.

- 2/ Soñuarekin kantari datoz
plaza berrira gazteak,
zortzi langille maisu azkarrak
eta beren emazteak:
Donostiarrak iñauterian
dira beti lenokoak,
zaldunak eta emakumeak
txit umore onekoak.

ZORTZIKOA

- 1/ Lorua bezelaxe
nator kantatzera.
zeren biyotzetikan
maisu det euskera,
aditzen dezutenai
par eragitera,
eta neri esker onak
ager egitera.

- 2/ Ez dakienarentzat
guztia da gaitza,
eta nere tokian
jar bedi bakoitza:
ez jakiñean dedan
zoruaren antza,
barkatuko zaitela
daukat esperantza.

- 3/ Azkeneko gabean
nere lagunakin
kunplitu nayan nago
Donostiarrakin:
adiskide-legean
adiyo batekin,
urrengo aldi arte
esker onarekin.

- 4/ Merezi ez ditugun
mesede aundiak,
ager egin dizkigu
aurten Donostiak:
ematen diozkagu
bertatik graziak,
eta gurekin dauden
alegin guztiak.
- 5/ Erri eder alaya
Donostiakoa,
jende maitagarria
pare-bagekoa:
ar ezazu oroitzen
biotz gurekoa,
egiazko naitasun
beti betikoa.
- 6/ Adiskidetasuna
arturik zuekin,
ezin sinistuz nago
barren-pozarekin:
munduak zuen fama
ondo dezan jakin,
zabalduko det gozoz
atsegiñarekin.

7/ Zuen modu naikerak
ez ditu aztuko,
zuekiko ezaguerak
beñere damuko:
despeditzen zaituztet,
bañan ez betiko,
ez-adiyo, maiteak,
asko degu gaurko.

DESPEIDA

Erriko agintari danentzat
nago atzarez betea,
arrazoya da gaur despedidako
esker onak ematea:
prestuak dira eta dakite
naitasun aundi gurea,
barkatutzeko egindako uts
jakinduria bagea,
ezaguturik ezin ohea
degula borondatea.

KONTU GERO...

Goi goyenetik begira zauden
iru txorroko txapela,
geldirik utzi neskatxa arri,
kontu nerekin bestela:
aztu bazaitzu, jakiñ ezazu
pake guardian zaudela,
eta batere emakumerik
palaka ez dezazula.

IKUSI: "**Euskal-Erria**", XL, 1899, 126 orri-alde.

Kanta-papera: "San Sebastián. Imprenta de Pío Baroja. — 1846". (Bonaparte-ren bertso-bilduma, The New Library, Chicago.)

Onek, asiera ta lenengo bi bertsoak, Euskal-Erria-k bezelaxe dakartzki, bañan urrena lau bertso ditu, ta oyek 1830-ngo **Langille Maisuen festa**-ko Zortzikoarenak dira.

Manterola-k ere ("**Breve noticia...**", "Euskal-Erria", VIII, 1883, 105 orri-alde) onela dio: "y el martes de 1846 se verificó la cuarta **Comparsa de Oficios o artesanos**. Para ella no se compuso más que nueva **Marcha**, pues se repitió el mismo **Zortziko** de 1830.)

1899 urtean Manterola illa zan; beraz, bertso auek Euskal-Erria errebistan atera zituanak, Manterola-k ezagutu etzuan tokiren batetik eskuratu zituan.

(1846)

ZORTZIkoa
ERREGIÑA ISABEL BIGARRENAREN
EZKONTZARI IPIÑIYA
ETA KANTATUA DONOSTIAN IGANDE
GAUEAN (1)

1/ Isabel bigarrena
gure Erregiña,
aingeru maitagarri
zeruak egiña:
ar ezazu, Donosti,
leyaltasun fiña,
beti izan dizuna
oberik eziña.

2/ Amasei urte bete
dituzun eguna,
autu dezu artzeko
senar on laguna:
lengusu D. Franzisko
Asis gure Jauna
egiñ dezu Errege
deiturik zugana.

3/ Ezkontza onen onran
dago Donostia,
naikeraz eta pozez
beterik guztia:
atsegin aundietan
erakutsi naya
bere zorioneko
zor dizun doaya.

4/ Jayo ziñan ordutik
urte bi baño len,
Donostiko semeak
fusillakin geunden,
biotzeko Isabel,
zure defenditzen,
guztiok borondatez
odoia itxurtzen.

5/ Orduan eta orain
beti gera lenak,
leyaltasunarekin
Isabeltxorenak:
garai gaitzan baña len
etsai berarenak,
eriotztuko gaitu
gazte zar geranak.

6/ Ezkontza oroigarri
aundi geyegia,
Isabelen biotza
txit urrikaria:
zuek barka dezute
uts egin guztia,
eta zabaldu ate
askori itxia.

7/ Gaur guztia da festa,
soñu eta dantza,
umore onarekin
kontentu bakoitza:
zelebratzen Isabel
onaren ezkontza,
gutziz ezaguna da
gure barren poza.

8/ Isabelen ezkontza
egiñik aurrena,
berealara eragin du
aizpatxoarena:
biak bizi ditean
albait ondoena,
eska zagan grazia
Jaungoikoarena.

(1) 1846-ngo Urriaren 10-an ezkondu zan erregiña. Arekin batera, bere aizpa María Luisa Fernanda ezkondu zan.

IKUSI: **Kanta-papera**, moldiztegiaren izenik gabea. (Bonaparte-ren bertso-bilduma, The New Library, Chicago.)

(Bertso auek ere Echagaray-renak ematen dute. Argatik jarri ditugu liburu ontan; bañan itxura beste arrazoirikan ez degula aitortu bearrean gaude.)

(1848)

“El domingo y martes de Carnaval de 1848 hubo *corridas de toretes de muerte*, organizadas por la sociedad *La Tertulia*, siendo todos los lidiadores, así de a pie como de a caballo, músicos, alguacil, maceros, repartidores de banderillas, etc., aficionados de la población.

Las *corridas* se verificaron en la Plaza de la Constitución, que fue cerrada con barreras para este objeto, y de ellas nos ha dejado memoria el señor Echegaray en unos *Zortzikos* que figuran en su colección con este epígrafe: **ILTZEKO ZEZENAK** *Donostiako plaza berrian, zalduniote eta azken ñautez 1848-garren urtean, zortziko que fue puesto en música por D. Manuel Delgado. (1)*

(1) José Manterola: **Breve noticia** de algunas Comparsas y fiestas de Carnaval...” (“Euskal-Erria”, VIII, 1883, 106 orri-alde.

(1848)

ILTZEKO ZEZENAK
DONOSTIAKO PLAZA BERRIAN ZAL-
DUNIOTE ETA AZKEN IÑAUTE 1848
GARREN URTEAN

ZORTZIKOA

1/ Adiskide anaitu
tertulia-koak,
gal ez ditezen festa
Iñauterikoak,
berri bat egiteko
dituzte asmoak,
gizon eta galayak
Donostiakoak.

2/ Lasturdik ekarriak
aukeran sei zezen,
bi iru urtekoak
jokatzeko emen:
orain arte Plazara
ez diranak irten,
Iñauteri festetan
illko dira aurten.

3/ Igande, astearte
bi arratsaldetan,
dira zezenak aurten
Iñauterietan:
bola zurezkoakin
adar zorrotzetan,
toliatzalle iñork
miñik ar ez dezan.

4/ Aurten beti bezela
aundizkirakoak
dira Iñaute festa
Donostiakoak:
jendez guztiz beteak
bazter plazakoak,
doarik ikusteko
zezen illtzekoak

5/ Lendanaz apaindurik
erara jarria,
dago Plaza ederki
barreraz itxia:
eser-leku luzea
algaindu josia,
aukerakoa eta
guztiz egokia.

- 6/ Festagille guztiak
dira errikoak,
pikadore, ezpata,
banderilleroak:
egokiak dituzte
jantzi soñekoak,
ala zaldi gañeko
nola oñezkoak.
- 7/ Plaza zaldunak ere
dira bertakoak,
aguazil nagusiak,
baita mazerokak:
Plazaren alaigarri
zaldi antzekoak,
ate-zai, soñulari
eta zortzikoak.
- 8/ Beti nai izan oi det
laburtxo gelditu,
ez kanta luzeakin
jendea nagartu:
aitormen au egiñik
ez iñor gogaitu,
aditzalle maiteak,
guztiok barkatu.

IKUSI: Kanta-papera: "DONOSTIAN: Pío Baroja-ren moldiztegian." (The New Library, Chicago.)

Bertso-bilduma ontan bertan, urrena kanta auen doña dago. Onela dio: **"ZORTZICO / Compuesto para las corridas de toros / del Carnaval del año 1848. / por MANUEL DELGADO / Poesia de D. VICENTE ECHAGARAY / SAN SEBASTIAN / Se halla de venta en la Administracion de Loterias / de esta Ciudad. / Precio 4 rs.**

"Euskal-Erria", 34, 1896, 153 orri-alde: 5/1: Lendanaz apaindua; 5/5: isiri leku luzea.

(1848)

PELEGRINOAREN BIZI-MODU
NEGARGARRIA
DONOSTIAN AMAR ZORTZIKOTAN
AGURTUA
1848-GARRREN INAUTERIAN (1)

- 1/ Pelegrino-bizia
nai duenak jakiñ,
erraz ikasiko du
txanpontxo batekiñ:
gure kanta berriak
erostiarekin,
irakurtzen baditu
fede onarekin.

- 2/ Pelegrinoak ditu,
nork bere modura,
esklabiñan kuskullak
solbardatik bera:
bordoyetik zintzilik
kurkubitan ura,
barrena bustitzeko
egarri bagera.

3/ Guztiz gogorak dira
samiñez beteak
sinistatu eziñik
gure naigabeak:
eta gero gañera
ez dira obeak
oñezko ibillera
nekeko luzeak.

4/ Beren gazte denboran
nekerak oitua
bear nai duenak
ikusi mundua:
indarra, osasuna
eta soportua,
bestela laster dauka
bizia galdua.

5/ Neguan elur aize
ormakin bidean,
erropa milla puska
egiña soñean:
oñak erdi estali,
aztalak aidean,
gabaz ezin berotuz
otzak legorpean.

6/ Udako beroakin
beti eguzkitan,
kiskaltzeko zorian
ordu guztietan:
beroak erre nairik
neke izerditan,
mingaña aterarik
gose egarritan.

7/ Gure alde daukagu
gauza bat bakarrik,
ez zaigula irtetzen
bidera lapurrik:
gurekin galdu gabe
denbora alperrik,
ez diogute bada
batere bildurrik.

8/ Pelegrinatzen oñez
gatoz Erromatik,
Aita Santu Pioren
bere oñetatik:
Donostiako erria
ikusteagatik,
eta zerbait limosna
bildutzeagatik.

9/ Emendik zuzenean
daukagu asmoa
ikusteko Patroia
Españiakoia:
Apostol Santiago
Compostela-koa,
gure fedeko santu
deboziazkoa.

10/ Uste det kanta obek
aditu ondoren
biotzik gogorrenak
bigunduko diren:
erremedia bitez
jendeak lenbailen,
esperantza orrekin
despeitzen naiz emen.

(1) El mismo año (1848) hubo una estudiantina y **Comparsa de peregrinos**, a las que proveyó también de versos, en castellano y en bascuence, el tantas veces citado poeta easonense. (José Manterola: "**Breve noticia...**", "Euskal-Erria", VIII, 1883, 106 orri-alde.)

IKUSI: "**Euskal-Erria**", 32, 1895, 120 orri-alde.

(1849)

“...para socorro de las víctimas de un naufragio se arregló un Nacimiento y se cantaron versos alusivos al acto.

He aquí el encabezado y la primera de las estrofas:

LOS JOVENES DE SAN SEBASTIAN AL NACIMIENTO DE JESUS. AÑO 1845

Zelebra zagun, gure kristabak,
gure Jesusen jayotza,
allegra bedi bakoitza.
Eman zayogun esker onean
maitasunekin biotza.

En aquel año, la Nochebuena, se pidió el aguinaldo cantando versos euskaros del condescendiente caballero, del insigne donostiarra D. José Vicente de Echagaray.

(Mendiz-Mendi: “Para los pobres: *El Nacimiento*”. “Euskal-Erria”, 53, 1905, 553 orri-alde.)

(Onek 1845 urtean kantatua dala dio; bañan kanta-paperak eta Manterola-k berriz, 1849-garrenean diote Auei kaso egiten diegu noski.)

José Manterola: “Cancionero Vasco”, Segunda serie, Tomo IV, pág. 56. Julio de 1878: “La *Introducción (asieraco jolasa)* y la *Pastorela (arrai-canta)* que aparecen en primer término, forman parte de los Villancicos que escribió para *Noche-buena* de 1849.”

(1849)

EGUBERRIKO KANTAK DONOSTIAKOAK
SOÑUAN IPIÑIAK BERE MAISU KAPI-
LLAKO D. J. J. SANTESTEBAN-EK,
JAUNAREN 1849 GARREN URTEAN

ASIERAKO JOLASA

- 1/ Zelebra zagun, nere kristabak,
gure Jesusen jayotza,
zeruetako obra onekin
alegra bedi bakoitza:
eman zayogun esker onean
fedearekin biotza.
- 2/ Onetarako adora zagun
pozez kontentuz lurrean,
bere graziak ipiñi gaitzan
zeruetako bidean,
sinisturikan biotz osotik
beti beraren legean.
- 3/ Urriki zaite pekatariaz,
zeru lurraren jabea,
Erredentore gizonarena,
Jaungoikoaren Semea:
barka gaitzazu ofenditua
zure ontasun aundia.

ARTZAI KANTA

- 1/ Guazen lasterka, guazen Belena,
ez degu bear gelditu,
Jesus maitea jayo berria
dezagun arte arkitu:
zeru argia lagun degula
galtzen utziko ez gaitu.

- 2/ Adora zagun biotz guztitik
aingeruakin batean,
bere grazia eta pakea
digula beti lurrean,
zeruetako bere gloria
eman dizagun artean.

- 3/ Adora zagun Trinitadeko
bere bigarren persona,
alaba zagun Jesus gurea
gaur egin dana gizona,
obra zeruko miragarria
zori onean egiña.

- 4/ Eska zayogun iruki gaitzan
bere grazian munduan,
libra gaitzala etsayetatik
eriotzeko orduan,
eta ondoren artu gaitzala
bere glorian zeruan.

BIRJIÑA AMAREN LENENGO
AMABOST URTEAK

ZORTZIKOA

- 1/ Amaren sabeletik
mantxarik bagea
Nazareten jayo zan
Birjiña Maria:
amoriozko ama,
zeruko bidea,
len orain eta beti
graziaz betea.

- 2/ Nazaretkoak ziran
aita eta ama,
eta beren izenak
Joakin eta Ana:
esperantzaz beteak
Jaungoikoagana,
Berak eman zioten
Birjiña Ama dana.

- 3/ Guraso on obekin
egon zan Maria,
iru urte egiten
aingeru-bizia:
aurtasunetik zuen
Jaunaren grazia,
jakinduria eta
birtute aundia.

4/ Gero amabi urte
egon zan temploan,
Jaunaren etxe santu
Jerusalengoan:
munduko zan guztia
utzirik beingoan,
ageri zuen ondo
bere ejemploan.

KOROA

Salbe lore zeruko
aur jayo berria,
izan zaitea, Jesus,
ongi etorria:
salbe ama maitea
Birjiña Maria,
Jose aita ordeko
Jaunak ipiña.

IKUSI: **Kanta-papera:** "Donostian: Ignacio Ramón Baroja-ren moldiztegian." (Bonaparte-ren bertso-bilduma, The New Library, Chicago.)

José Manterola: "Cancionero Vasco", Segunda serie, Tomo IV, pág. 57: Artzai kanta, 4/3: etsaitatitan.

DONOSTIAKO GALAI GAZTETXOAK
JESUSEN JAYOTZARI
1849-GARRENEKO URTEAN

PASTORELA

1/ Txanton koplari latza,
Pello kantaria,
eta auzoko Txomin
arrabetaria,
adiskide azkarrak
ditugu gurekin,
gau ona pasatzeko
pozez elkarrekin.

2/ Gure eskarioa
da urterokoa,
agirandotxo zerbait
borondatezkoa:
Eguerri jai obek
zelebra ditzagun
beron esker onean
ala gau non egun.

ESTRIBILLO

Soñuba joaz, kanta, mutillak,
umore ona gurekin,
etxeko jende prestu maiteak,
agur onenbesterekin,
urte askoan bizi beitea
Jaunaren graziarekin.

ZORTZIKOA

- 1/ Gaurko misterioa
parerik gabea,
Birjiñagandik dator
Erredentorea:
zeruetatik datoz
ama ta semea,
Jesus eta Maria
graziaz betea.

- 2/ Berakin dute Jose
aita ordekoa,
gizon justu, ejemplo
kastidatekoa:
ezagutzen duena
dala zerukoa
Birjiñaren frutoa
gaur jayotakoa.

ESTRIBILLO

Guazen, lagun maiteak,
Belengo atera,
aurtxo jayo berria
guazen ikustera:
guazen arin lasterka
portale azpira,
adoratzera Jauna
zerukoa bera.

IKUSI: Kanta-papera: "Imprenta de Ignacio Ramón Baroja". (Bonaparte-ren bertso-bilduma, The New Library, Chicago.)

Kanta auek norenak diran, ez du iñork esaten; bañan itxura dana Echagaray-rena duten ezkerok, liburu ontan jarri ditugu.

(1850)

DONOSTIAKO GAZTEAK
1850 GARREN URTEKO ERREGE
BEZPERA GAUEAN

MARTXA, EDO IBIL BERDIÑA

Iru errege Orientetik
datoz Belengo bidean,
zeruko izar argi ederra
lagun dutela aurrean:
berak emanik argitasuna
Mesias jayo danean,
berealaxe sinistu dute
biotz osotik fedean.

Errege obek eman digute
ejenplo ona gaur bertan,
nola agertu, zer moduz egon,
Jesus onaren oñetan:
eskatzen beti biotz barrendik
gogoz ordu guztietan,
gorde gaitzala bere grazian
bizi geran egunetan.

PASTORELA, EDO ARTZAI-KANTA

Pozez, kontentuz,
naikeran, eta
gutziz umore onean,
egondu giñan
etxe onetan
Onenaroko gauean:
gaur ere berriz
onera gatoz
adiskide on legean,
zelebratzera
Errege eguna
bezperatikan pakean.

Jakin dezaten
gure esker ona
beti izan dala egia,
adi bezate
arretarekin,
zabal bezate begia:
ikus dezaten
gure egin naya
berontzat dala aundia
soñua, kanta,
jayotz-lekua,
guztia degu berria.

ZORTZIKOA

1/ Etxekoai gau onak
emanik aurrena,
zelebratzera gatoz
Errege-eguna:
berak bezela degu
izarra laguna,
adoratu dezagun
gure Jesus ona.

2/ Jai ona bezperatik
degu gaur gazteak,
batzuek soñuakin,
kantari besteak:
ontarako gurekin
datoz Erregeak
lendanaz aitortuaz
beron bondadeak.

3/ Errege santu obek
Orientekoak,
izan arren lenago
mago legekoak:
sinistatu dituzte
obra on gaurkoak
argiturik beingoan
izar zerukoak.

4/ Beren umiltasunak
digu erakutsi
gloria zerukoa
nola erabazi:
gaurdandikan ikasten
bear degu asi,
eta oitu bezela
ez geroko utzi.

KOROA

Beron agirandoaz
Onenzaroetan
oroituko gerade
gure egunetan:
orduan etorria
ez gaude damutan,
ageri dan bezela
oraiñ emen bertan.

IKUSI: **Kanta-papera:** "Donostian. Ignacio Ramon Baroja-ren moldizteguian". (Bonaparte-ren bertso-bilduma: The New Library, Chicago.)

"Euskal-Erria", XIV, 1886, 38 orri-alde.

(1850)

“El Carnaval de 1850 se repitieron la *Comparsa de Jardineros* y la de *Peregrinos*, para las que escribió nuevos Zortzicos el Sr. Echagaray. (José Mantecola: “Breve noticia...”, “Euskal-Erria”, VIII, 1883, 106 orri-alde.)

COMPARSA DE JARDINEROS
EJECUTADA
EN LA CIUDAD DE SAN SEBASTIAN
EL DOMINGO DE CARNAVAL DE 1850

MARCHA

Alma Ceres, benéfica diosa,
tú que bordas de ricos colores,
alfombrando de espigas y flores,
los espacios del monte y verjel;
grata acoge la fácil ofrenda
que dejando los rústicos lares
te brindamos en dulces cantares
con guirnaldas de rosa y clavel.

Cuando nace la cándida aurora,
entre nubes de púrpura y grana,
vienes tú con la fresca mañana
por los campos la vida a sembrar;
y al sentirse con blando murmullo
por tu plácido aliento mecidas,
en su tallo las plantas dormidas
se levantan tu seno a besar.

Llena entonces la vasta campiña
un rumor de apacible armonía,
que amorosa la tierra te envía
despertando a tu soplo creador;
y doquier por sus ámbitos vuelan
en balsámicas ondas flotando
los aromas que vas derramando
con tu dulce vivífico ardor.

Y por eso las auras te olean
en el llano y la verde enramada,
y las aves te dan la alborada
revolando en alegre tropel;
y por eso nosotros tus hijos,
venturosos en rústicos lares,
te cantamos en dulces cantares
con guirnaldas de rosa y clavel.

HIMNO

Coro

*Cantemos a Ceres
en himnos sin fin,
orlando su frente
de rosa y jazmín.*

Su mágico aliento
en germen fecundo
vertiendo en el mundo
el fruto y la flor,
los valles esmalta,
las mieses ondea,
y el bosque sombrea
con fresco verdor.

En paz cultivando
la vega florida,
pasemos la vida
en grato solaz,
cual pasa en el prado
regando su suelo
el manso arroyuelo
con onda fugaz.

La yerba mullida
nos da blanda alfombra
el árbol su sombra,
el sol su calor;
nos dan los jardines
sus flores y galas,
las bellas zagalas
su cándido amor.

Y así venturosos
en plácida calma
sin sombra en el alma
de triste pesar,
a Ceres cantando
en voces canoras
tranquilas las horas
miramos pasar.

ZORTZIKOA

1/ Gaindu dedien festa
baratzetakoak,
berriro moldatua
degu zortzikoa,
euskaldunaren kanta
antziñetakoak,
itz neurtu egokia
biotz gurekoa.

2/ Donostiako festa
Iñauterikoak
dira ikusgarriak
eta betikoak:
gaur agertzen dizute
gazte bertakoak,
plazan egiten lanak
baratzetakoak.

3/ Gurdiaren gañean
gure ama Flora,
eder, panparroi dago
igoa jargoira,
ninfa biren erdian
egiten denbora,
laster uda berrian
joateko kanpora.

4/ Gure emakumeak
nor bere aldian,
oituak gu bezela
neke izerdian,
laguntzalle ditugu
joan dan aspaldian,
baratzako lanetan
denbora guztian.

5/ Gaur polita badago
baratza gurea,
gerora egongo da
oraindik ohea:
belar ona naikeran,
aukeran lorea,
usaya gozo eta
eder kolorea.

6/ Nagusi, etxekoandre,
baratz lanekoak,
ditugu agintari
denboretakoak,
biak guztiz azkarrak
eta jakintsuak,
beren aurtasunetik
nekean oituak.

7/ Berakin ikasiak
baratza-lanetan,
gerok aitortzen degu,
ez gaude damutan:
esker onez beteak
edozein lekutan,
oroituko gerade
gure egunetan.

8/ Onelako gayakin
erraza da lana,
ikasi nai duena
betor guregana:
alfer eta nagia
ez bada gizona,
emen arkituko du
billatzen duena.

KOROA

*Aurten inauteriko
festa egunean
gaude baratzgilleak
naikera betean:
soñu eta kantakin
umore onean,
aitzurtzen eta dantzan
denbora berean.*

IKUSI: **Kanta-papera**: "Imprenta de IGNACIO RAMON BAROJA". (Bibliothèque Nationale, Paris.)

Paperak oar au du inprentaz: "La música se vende en la Litografía de Gordon hermanos".

Ta beste aukerak eskuz idatzita: "(Manterola, 878: 8re, 6) ta (Este Zortzico fue compuesto por D. José Vicente de Echagaray.) Bigarren oar au Manterola-ren letraz idatzita dago.

"**Euskal-Erria**", 40, 1899, 95 orri-alde: Onek asiera onela du: BARATZAGILLEAK IÑAUTE FESTAN, 1850-GARREN URTEAN. Azkenean egillearen izena jartzen du: **José Vicente Echagaray**. Ta aldaketa au du: 2/5: gaur agertzen dirade. Erderazko bertsoak ez dakar.

(1850)

PELEGRINOAK BEREN DONOSTIARA
ETORRERAN,
EGIÑ ETA ONDOREN SANTIAGO-KO
PROMESA,
1850-GARREN URTEKO IÑAUTERIAN

ZORTZIKOA

- 1/ Erromatikan bueltan
orain da bi urte,
Donostian egona
ez genduen kalte:
ez ere ibillia
emen atez ate,
beron limosna onez
bete giñan arte.

- 2/ Aitortu genioten
orduko kantetan,
gure bizi-modua
neke ta penetan:
gutziz urrikaria
ordu guztietan,
erromerietako
bide luzietan.

3/ Dira gure naigabe
arrezkerokoak
sinistatu eziñak,
negargarrizkoak:
urrikari gogorak
neke bidekoak,
trabajuak aundiak
kabu bagekoak.

4/ Eun legua bide
Santiagotikan,
euri, elur, jelakin
beti bustirikan:
legorpe bat eziñik
otzak ikaretan,
ala egiñ zaizkigu
zauriak oñetan.

5/ Pena obek guztiak
igaro ondoan,
arkitzen gera kale
Donostiakoan:
aldi lenagokoa
daukagu gogoan,
eta fede aundia
jende bertakoan.

6/ Esperantza onekin
degu barren poza,
urrikituko dala
erriko bakoitza:
Jaunak degiotela
bigundu biotza,
au da pelegriñoak
degun konfiantza.

7/ Erroparik txarrena
zoko-baztertua,
zernai janari-gauza,
naiz eratekoa:
beron karidadea
borondatezkoa
da pelegriñoaren
eskea gaurkoa.

8/ Legorpe bat edozein
degu ostatua,
gure gorputza dago
guztira oitua:
degun oirik onena
da lasto txetua,
oraindik obiago
berotzeko sua.

9/ Eskeintzen diogute
zortziko berria,
gaur bertan Donostian
gerok ipiñia:
txanpon bana bakoitza
berontzat guztia,
ez deritzagu dala
gauza garestia.

10/ Amargarren bertso au
da azkenekoa,
agur bada, jende on
Donostiakoa:
artu gure oroipen
biotz barrengoa,
oraiñ eta beñere
ez aztutzekoa.

IKUSI: **Kanta-papera**: "Donostia-n: Ignacio Ramon Baroja-ren moldiztegia". (Bonaparte-ren bertso-bilduma, The New Library, Chicago.)

"**Euskal-Erria**", XLII, 1900, 124 orri-alde. Aldaketak: Izen-buruan: Santiagora: 5/5-6: aldi lenagokoak dauzkagu gogoan; 9/1: diotegu.

AL NACIMIENTO DEL HIJO DE DIOS

PASTORELA

1/ Venid, lindas pastoras,
venid en este día
latiendo de alegría
el joven corazón:
y al niño que ha nacido
en míseros pañales
con ecos celestiales
rendid adoración.

2/ Venid; bellas coronas
tejed de puras flores,
de mágicos colores
y aroma celestial:
venid, que al tierno niño
de amor y vida lleno
aduerme ya en su seno
la madre virginal.

CORO

Cerquen la pobre cuna
lLENOS de amor los ángeles
y entonen los arcángeles
su mística oración:
y formen con sus alas
de mil y mil colores
de eternos resplandores
purpúreo pabellón.

ZORTZIKOA

- 1/ Gau eder aukerako
parerik gabea,
ekarri gaituzuna
Erredentorea:
mundu guztiarentzat
dakartzu pakea,
Belenen jayorikan
Jaun eta Jabea.

- 2/ Irugarren Persona
Trinidadekoak,
zabal idiki ditu
ate Zerukoak:
bere obra birtute
onezgillekoak,
kunplitu dira lenaz
agindutakoak.

3/ **Trinidad** Santuko
bigarren Persona
diguñ amorioaz
egin da gizona:
Zerua utzirikan
jetxi da gugana,
Birjiña Mariaren
seme Jesus ona.

4Z **Beleneko** portale
zori onekoa,
estalpe doaitsua
bide Zerukoa:
kristabaren sor-leku
lege herrikoa,
toki iñon bestetan
ez bezelakoa.

KOROA

*Salbe, lore Zeruko
aur jayo berria,
izan zaitea Jesus
ongi etorria:
Salbe, Ama maitea
Birjiña Maria,
Jose aita ordeko
Jaunak ipiñia.*

IKUSI: **Kanta-papera:** "San Sebastian: imprenta de Pio Baroja". (Bonaparte-ren bertso-bilduma, The New Library, Chicago.)

(Paper ontako azken bertsoa, 1849-ngo "**Egu-berriko Kantak Donostiakoak**" deritzayon pape-raren azken bertso ber-bera da. Beraz, paper ura Echagaray jaunak aterea bada, au ere ala izan-go da, ta argatik jarri degu liburu ontan. Bañan zein urtetan kantatu ziran jakin-ezean, atzenean jarri ditugu.)

(1852)

ZORTZIKOA

- 1/ Erregiña andrea
Españiako,
Isabel bigarrena
biotz barrengo;
ar ezazu oroipen
gurea gaurkoa,
leyaltasun betiko
Donostiakoa.

- 2/ Jakiñ genduenean
zure naigabea,
ez da erraz esaten
gure dolorea;
pena samiñ negarra
zori gaitz gurea,
barrena pisu eta
txea asnasea.

3/ Gero jakindu degu
zorion gurean
gaur jartzeko ziñala
Atotxa bidean;
beingoan sendaturik
osasun betean,
esker on ematera
Jaunaren aurrean.

4/ Guk ere gaur nai degu
denbora berean
esker ona agertu
Jaunaren oñean;
biotz osotik otoitz
gure egiñalean,
gorde zaitzan *Isabel*
denbora luzean.

IKUSI: **Kanta-papera.** Onek izenburua onela du:
HIMNO cantado la noche del 15 de Febrero de 1852 en el teatro de San Sebastián. Urrena erde-
razko iru-lau bat bertso datoz, ta urrena onera
aldatu degun ZORTZIKOA.

Onek ere itxura dana Echagaray-rena du. Orre-
gatik jarri det emen. Bañan aitortzen det arrazoi
ori bakarrik izan detala.

(1853)

**DONOSTIAN, 1853-GARREN URTEKO
IÑAUTERIYETAN
ZORTZIKO BERRIYA**

1/ **Kanta eta dantzako
soñu egokia,
zerade, zortziko,
biotz pozgarria:
txoill eder, kutun eta
bertso oben gaya
argira emateko
nere esan naya.**

2/ **Orañ baño lenago
bada amar urte,
oroigarri izan zan
astelen iñaute:
Donostiako plazan
kantatu zan arte,
kale asko zirala
menditarrez bete.**

3/ Elkarren gain bultzaka
erri barrenian
baserritarrak ziran
soka-muturrian:
bañan arrantzaliak
bildu ziranian
atzeratu zituzten
umore onian.

4/ Noizbait arkiturikan
baka ixkiñian
makiña bat atzapar
zuten bizkarrian:
guztiyak lagun onak
anaitasunian,
bazkariya sartzeko
tripa zimurrian.

5/ An oroitzen zitzayen
etxeko txokua,
amaren porru-salda
ta az-oliyua,
beren jaiotz-erriko
bizitza modua,
iñoren gaitzik gabe
Iñauterikua.

6/ Adiskide maitiak,
euskaldun neriak,
ernai eta arreta
zar eta gaztiak:
jardun denborarekin
nork bere nekiak,
elkar palakatuaz
naikeran pakiak.

IKUSI: "**Euskal-Erria**", 50, 1904, 118 orri-alde.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso asko (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU.
3. *F. Apalategui, S.I.*: EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso asko.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA ta beste bertso asko.
6. *Toribio Alzaga*: RAMUNTXO.
7. *Ramos Azkarate*: GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
8. *Antero Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *Bitoriano Iraola*: OROITZAK ta beste ipui asko.
10. *Bertsolariak*: ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962).
11. *Piarres Larzabal*: BORDAXURI
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. *Mariano Izeta*: DIRUA GALGARRI.
14. *Piarres Larzabal*: IRU ZIREN.
15. *Bertsolariak*: EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *Alfonso M.º Zabala*: GABON GAU BAT ta beste ipui asko.

17. *Antonio M.^a Labayen*: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. *Antonio Zavala, S.I.*: TXIRRITA (Bizitza ta ta bat bateko bertsoak).
20. *Franzisko Goñi, S.I.*: LURDESKO GERTAE-RAK.
21. *Piarres Larzabal*: HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE.
22. *Bertsolariak*: BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK ta beste ipui asko.
24. *Fermin Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOLASAK.
26. *Alfonso M.^a Zabala, A. Larraitz, Juan Mir*: PERIYAREN ZALAPARTAK.—Melitona'ren bi senarrak.—Mendibe'tarren larriyak.—Utzi bearkol —Gizon bikañak.
27. *Bertsolariak*: AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. *Bizenta A. Moguel*: IPUI ONAK.
29. *Toribio Alzaga*: BURRUNTZIYA.—Bernaiño'ren larriyak.—Txibiribiri.—San Tomas'eko feriya.
30. *Graziano Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA ta beste bertso asko.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN BIZITZA, bere alabak kontatua.
33. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *Piarres Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.



1027920

JB-910

